

# GUaiXe.net



**June Kintana,**  
**Europako**  
**seigarrena**



**Kirolak >> 19**

**Bakaikuk eta Olatzagutiak hartu**  
**dute festen lekukoa. Agorrilean ez**  
**da aspertzeko betarik izanen**  
**Sakanan, ikus agenda zabala**



**Udako agenda >> 9-16**

**Gobernuak**  
**aulki bat**  
**noiz**  
**emateko**  
**zain**



**>> 17**

**Inkubategi**  
**kooperatiboa,**  
**enpresak sortzeko**

**>> 3**



**Ikastetxe**  
**publikoetan**  
**inbertsioak**  
**eskatu dituzte**  
**Altsasun**

**>> 17**

**Zorri azoka,**  
**azoka soziala**  
**Etxarri**  
**Aranatzen**

**>> 7**

**CPVk**  
**prolandegitik**  
**18 langile**  
**kaleratuko**  
**ditu**

**>> 18**



**Langabetuak**  
**aktibatze**  
**programa**  
**martxan**

**>> 8**



Curvados Alzania enpresa sortu dute Comebarren zeuden langileak, euren langabezia kapitalizatu ondoren.

# Eta segi aurrera

**>> 5**

**GUaiXe.net**

**abuztu**  
**oporretan**  
**gaude**

**Sakana**  
**optika**

**merkealdia**

**Eguzkitako betaurrekoak**  
**29€-TIK HASITA**

optikasakana@gmail.com • 948 563 124 • Iortia Plaza 11 • ALTSASU

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



Andoni  
ZORIONAK!! "Felon  
el bandido"



Maddi Gastaminza Betelu  
Larunbatean... Bigarren eskuarekin zenbatzen  
hasiko zara. 6 URTE!  
ZORIONAK politte etxeko guztien partez.



Aritz  
ZORIONAK pilotari!!  
Ondo pasa eta muxu  
muhu handi bat. Etxe-  
koen partez.



Joanes, Jon, Adur eta Aritz  
ZORIONAK laukote!! Astelehena 29 piszinetan  
elkar ikusiko dugu. MERENDOLAAAAA 17:30ean!!  
Ondo pasa.



Euken Goñi  
Andueza  
ZORIONAK politte!! Abuz-  
tuaren 12an 4 urte beteko  
dituzu. Ongi pasa eguna eta  
muxu handi bat!! Etxeko-  
koen partez.



Jon Ayerbe Senar  
ZORIONAK!! Helduan  
29yen 7 urte, ze haundiye  
eh! Merendola prestatu de-  
nondako eta txintxue izan.  
Lizarragako eta Urdiaingo-  
en partetik.



Aritz Ulaiar Fdez  
de Arroyabe  
ZORIONAK potxolo!! Oso  
ongi pasa zure eguna. Lixe-  
rrengoko familiaren partez.  
Muxu handi bat. Asko maite  
zaituguuu!!

**belexe** online  
edo uhinbak aplikazioaren bitartez [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

**Ostiralero** 9:30etik 10:30era **SAIOA**

**Asteburuko agenda**

**Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Inkubategi kooperatiba, Lucas Mozo, Ikastetxe publikoen inguruan Altsasuren eskaera...**

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

**Irailean itzuliko gara**

## LIZARDI

### harri lanak

616 086 720 / 948 462 058  
Aldaba 1 · Arbizu

&gt;&gt; Arbizu / Etxarri

## Udalerri euskaldunetan osasun zerbitzua euskaraz bermatzeko eskatu du UEMAK

Sakana erdialdean pediatria euskaldunak ez dagoela salatzen

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK biltzen dituen udalerrietako oinarriko osasun zerbitzuetako hizkuntza errealitatearen berri eman du, familia mediku eta pediatria hain zuzen. UEMA barruan dauden Arbizu eta Etxarri Aranatzeko kasuan, familia mediku euskaldunak daude, baina ez pediatriak. UEMatik nabarmendu dutenez, "haurrenia %100 euskalduna den eremuan, pediatrik ez du haurrek egunerokoan darabilten hizkuntzarik ezagutzen".

UEMAk Osasunbidearekin bilera egin zuen udalerrri euskaldunetako egoeraren berri eman, eta gutxiengo batzuk adosteko helburuz; eta egia da bilera sintonia onean joan zela eta egindako eskaerak egokiak iruditu zitzaizkiela. "Baina herritarrek hori baino zerbait gehiago behar dute. Hitzetatik ekintzetara pasatzea. Eta hori ez da gertatzen ari dena" salatu dute UEMatik.

Mankomunitateko ordezkariak nabarmendu dutenez, "Osasunbideak bere burua euskalduntzeko planik ez du, ez eta aurrera begira egiteko asmorik ere; beraz, sortzen diren arazoei irtenbidea bilatzeko oinarriko arazoak topatzen dituzte eta topatzen jarraituko dute. Horrela, Nafarroako udalerrri euskaldunetako herritarren hizkuntza eskubideak urratuak dira, etenik gabe". UEMAK herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko Osasunbidearekin harremanetan segitu eta elkarlanean aritzeko prest azaldu da.



Etxarri Aranatzeko osasun etxea.

SAKANA

## Inkubategi kooperatiboa, enpresak sortzeko erraztasunak emanen dituen egitasmoa

Ekintzailea bazkidetu eta lege berme guztiekin hurrengo egunean bere proiektua merkatuan egotea erraztuko luke

Astelehenean eta asteartean, 10:00etatik 14:00etara, Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan ikastaroa izanen da

Sakanako garapenaren sustapenerako sare soziala da Sakantzen Sarea. Urte luze bakarrean bost enpresa egitasmo bulkatu ditu. Sareko kide Joseba Garmendiak Belexe Irratian (FM 107,3) esan duenez, "konstatazio bat dauka: nork bere aldetik enpresa bat sortu nahi badu, tramite batzuk bete behar ditu: altan ematea, zerga batzuk ordaintzea, kapital soziala jarri, notarioenetik pasa... Proiektu bat aurrera eramatera animatuta dagoen jendearendako oztupoa izan daiteke".

Bestalde, sareko kideak oharu dira negozio ideiak dituztenek produktu edo zerbitzu batzuk saldu nahi dituztela eta ez dakitela merkatuaren erantzuna zein izanen den. "Jende askok atzera egiten du hasieran sekulako inbertsioa eta ahalegina egin behar dutelako, jakin gabe gero zer gertatuko den, hasierako inbertsioa berreskuratuko duen eta proiektua aurrera egingen duen".

### Hiru abantaila

Hori errazteko sortu nahi du Sakantzen Sareak inkubategi kooperatiboa. "Hasierako tramite horiek guztiak eragozteko eta errazteko aterpe bat eman nahi dugu. Inkubategi juridikoa litzateke". Garmendiak adibide gisa artisautzako produktuak saldu nahi lukeen pertsona bat jarri du: "kooperatibako bazkide gisa eta jarduera ekonomikoaren zergan altan ematea nahikoa luke funtzio-

### Ikastaroak



Dagoeneko Udako ikastaroko hiru saio egin ditu Sakantzen Sareak. Bere aurtengo plangintzan prestakuntza saioak zituen. Uda aurretik hiru ikastaro egin zituen: ideiak garatzeko metodologia, kudeaketarako sistema baten ingurukoa eta bideragarritasun planak egiteko klase praktikoak.

Egoki ikusi zuten prestakuntza saio batzuk udan kontzentratzea eta "esperimentua ongi atera da" Garmendiak azaldu duenez. Batzuetan 10-12 pertsona bildu dira ikastaroetan. Nekazaritza ekologikoa, turismo aktiboko enpresen kudeaketa eta enpresa txikiendako kontabilitate eta fiskalitate prestakuntza saioak eskaini dituzte azken egunetan.

Garmendiak Belexe Irratian (FM 107,3) esan du parte-hartzaileak egitasmo zehatzetan ari direla eta "jasotako ezagutza erabilgarria zaie. Eta hori oso positiboki baloratzen dugu".

natu ahal izateko. Hurrengo egunean saltzen egon daiteke". Inkubategi kooperatiboak merkaturatze prozesua errazten eta laburtzen duela azpimarratu du sareko kideak. "Horrela, kostu handirik gabe, hilabete gutxitan bere produktuak merkatua duen edo ez ikusi dezake".

Kooperatibako bazkide egingen litzatekeen ekintzaileak, autonomoek ez bezala ez luke hileroko kuota bat ordaindu beharko, gizarte segurantzako erregimen orokorrean leudekeelako. "Kudeaketa informatikoaren bidez asko errazten da altak eta bajak kudeatzea, benetako lan bolumenari egokitzeko. Lan gutxi dagoen hilabetean doitu egin daiteke eta horrela kostuak murriztu".

Azken abantaila bat aipatu digu Garmendiak. "Ekintzaile eta egitasmo ugari aterpe bera azpian egotean sinergiak eta harremanak lotu egiten dira, azken batean proiektu sozial bat

delako eta neurri batean bata besteari laguntzeko aukera dagoelako". Inkubategi kooperatiboa jardueran aitzak aterpetu nahi dituzte Sareko kideak.

### Ez du leku fisikorik izanen

Garmendiak zehaztu digunez, "kudeaketa koordinatuko duen tresnak eta pertsonak toki fisiko batean egonen dira. Kontabilitate, fiskalitate eta gestio laboral zerbitzuak emanen ditu kooperatibak. Aholkularitza juridiko horrek gauzak erraztu eta kostuak murriztuko ditu".

Inkubategi kooperatiboa, agian, gehienez bi urte egonen dira ekintzaileak. "Enpresak funtzionatzen duela ikusten denean kooperatibatik atera, bere nortasun juridikoa hartuko luke eta gero inkubategiarekin bazkidetuko litzateke, beste proiektu batzuk lagundu ahal izateko".

Inkubategia enpresa bat den heinean ardurak eta bete beha-

**Izen ematea**  
sakantzensarea@gmail.com helbidera idatziz egin daiteke.

rrak ere badaude eta haiek partekatuko egin behar dira. Aurkezpenaz gain, astelehenean zein babes neurri hartu daitezkeen ere aztertuko dute. "Neurri bat da konfiantza, elkarlana sustatzea, baina formulazio legalak ere jarriko dira, proiektu bakoitzak bere autonomia izan behar baitu gainontzekoei ez eragiteko". Tresna horiek opatzen ANELek (Asociación Navarra de Empresas Laborales) eta SAK-In Consulting-ek lagunduko ditu Sakantzeneko kideak.

Inkubategi kooperatiboa martxan jartzeko zain dagoen jendea badela ziurtatu digu Garmendiak. Udazkenerako inkubategi kooperatiba martxan egotea espero du sareko kideak.

**FELIX OTEGI**  
**TAXIA**  
9 lagunendako tokia  
**660 342 071**  
**IRURTZUN**

**Irailaren 17a**  
baino lehen bidali

**Udako G**  
**argazki lehiaketa**

>> Saria: **KATE informatikak** eskainitako **webcam-a, mikrofonoa eta aurikularrak**

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel eta jpg formatua izatea. **Argazkiak Sakanan hartutakoak izan beharko dira.** Argazkiari bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri beharko dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Blerrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko bidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Blerrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak irailaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.



Eduardo Galan

astekoa

## Ez gaude hain urrun...

2.002. urteko Aste Santuan joan ginen Gorka eta biok AEBetako New York aldera, Kanadako Montrealetik Greynhound-eko autobus horietan, gau elurtsu batean, mendebaldeko kosta goitik behera zeharkatuz. Gogora dator kit hirizoragarri honetan murgiltzerakoan, nolako giza, kultura eta diru aberastasuna zegoen, baina baita zelako pobrezia, miseria eta zoritxarra ere. Hauek argi etagar-

bi azaltzen ziren pausoz pauso, begirada askoren atzetik. Bertakokaleetan eskaleak kontaezinak ziren, eta hiriko toki guztietan zebiltzan zerbait eskatuz. Ez dakit zergatik, baina bidaiatzen dudana bakoitzean hauetan jartzen dut arreta, herri bakoitzaren aurrez aurreko bizi kalitateko indikadore bat baita neretzako.

Duela aste bat AEBetako Detroit hiria, automozio industriari

esker-Chrysler, General Motors Company, Ford...-XX. mendeko azken bost hamarkadetan munduko industria hiririk indartsu eta garrantzitsuenetakoa bilakatutakoa, bankarrotan deklaratu zen. Garai horietako bimiloi pertsona izatetik gaurko zazpiehun mila biztanle izatera pasada. Arrazoi gordinena, lana falta, eta besteak beste, Sam Osabaren herrian betikoak diren delin-

kuentzia, arrazakeria eta, nola ez, zerbitzu publikoengabezia. Diru kutxa "sosik gabe" geratu dela aitortu zuen hiriko alkateak, bere ekonomia encefalograma laua bihurtuz, zorra 20.000 mila milioi-koarekin eta hiriko biztanleriaren %36 benetako txiro bilakatu. Guri bost, AEBak urrunegi daude geure Sakana maitetik.

Gaur irakurri dut Estatuko Gizarte Segurantzak 9.568 pertso-

na gehiago galdu dituela ekainean, LOMCE-a onartu egin dela, udalenzorraz gero eta altuagoak... Goizero, etxetik lanera dudana bidean, gero eta jende gehiago ikusten dut Iruñeko hiri barneko espaloietan dirua edo jakiak eskatuz. Ez gaude hain urrun AEBetatik, edo bestela itxoin, nola berehalaxe hurbiltzen garen.

**Kexak, iritzia, iradokizunak:** [dudugalan@hotmail.com](mailto:dudugalan@hotmail.com)

## barrutik kanpora

# Balantzea egiten: erresistentziak eta beste aukerak

Beste denboraldi bat gehiago da Sakanan proiektu handien inposaketaren mehatxua jasaten dugula. Proiektu hauek gure osasuna eta ingurumena arriskuan jartzen dute. Hori gutxi ez balitz, gauregun krisian dagoen ekonomia eta gizarte eredu mantentzen dute. Horien aurrean, Sustraiek, beste giza eragile batzuekin batera, proiektu hauen

aurrerapena oztopatu eta baldintzatzeko lan egin du ahal duen moduan.

Hala ere, gaurko hausnarketan beste inizatiba batzuk txalotu nahi ditugu. Iniziatiba hauek ez diote erresistentziarik jartzen kapitalismoari, beste aukera batzuk ireki baizik. Gure etorkizuna positiboki eraikitzen eta ingurumenarekin oso lagunga-

riak direnak alegia.

Atsegin ditugu bereziki kontsumo arduratsuan kokatzen diren jarduerak.

Atsegin ditugu gure hondakinak gutxitzeko saiatzen diren kanpainak, berreraileak eta birziklapena bultzatuz, atez ateko bilketa bereziak, hondakin organikoaren konpostajea barne, edo festetan edalontzi berrera-

bilgarrien erabilpena.

Atsegin ditugu energia berriztagarriak erabiltzeko ahalmenak, adibidez Goiener edo Energia Gara kooperatiben bitartez, energia arloko multinazionalak gure diruarekin gehiago ez aberrasteko.

Eta batez ere, atsegin ditugu bertako elikagaien ekoizpen ekologikoa bultzatzen dituzten proiektuak, kontsumo taldeen bitartez, Lugorri bezala adibidez.

Hiru adibide praktiko bakarrik dira, autogestioan, autonomian eta gizartearen indarrean aurreratzea ahalbidetzen dutenak, munduko eta bertako botere ekonomikoaren inposketari aurre egiteko, botere politikoa ekonomikoaren menpe baitago.

**Sustrai Erakuntza**

## hara zer dien

# Gizarte zerbitzu eta familia programa

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan beste batzuen artean Familia, Haurtzaro eta Gazteria programa dago.

Familia programa hau adin txikiek babes falta edo falta hori izateko arrisku egoeran dauden zuzenduta dago (arriskufisiko edo emozionala). Familia esku-hartze programak laguntza sozio-educatiboa ematen du, eta familia giroa egokia garatzeko pauso hauek jarraitzen dira:

- 1- Familia egoeraren diagnostikoa. Horretarako arrisku faktoreak (etxebizitza, lana, harremanak, hezkuntza eta zainketa) ebaluatu egin behar dira eta kontuan hartu behar dira, bai familian eta bai ingurunean dauden baliabideak eta indar-guneak; horiek aktibatuz gero aldaketak sortu daitezkeelako, eta familian beharrezkoak diren egonkortasuna eta segurtasuna lortu.
- 2- Egoeraren diagnostikoa egin

ondoren esku-hartze plana egin behar da.

3- Helburuak zehaztu. Horretarako, familiako kideen parte hartzea ezinbestekoa da. Familiaren beharretan eta zailtasunetan oinarritzen da eta, azkenean, helburuak finkatzen dira, hau da, beharrezkoak diren aldaketak lortzeko familiak zer pauso jarraitu behar dituen. Horretarako plangintza bat egin behar da, galdera hauek jarraituz: Zer? Zei-

nek? Nola? Non? Noiz? Helburuak gero ebaluatzen dira.

4- Aldaketak sortu. Lan saioak familiarekin, familia sistemaren funtzionamendua aldatzeko, portaerak aldatzeko, eskuhartze sozio-educatiboa (parentalitatea, erresilientzia, adimen emozionala).

5- Amaiera. Familia bere buruaren jabe izatea. Familia-sisteman segurtasuna, egonkortasuna, babesa eta ongizatea lortu dira, eta behar diren aldaketak eman

dira. Oraindik jarraipenak egiten dira.

Hori dena aurrera eramateko, familia eta haurrekin harreman zuzena duten profesionalak elkarrekin lan egitea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horretarako Sare formalak antolatzen ari dira Sakanako Gizarte Zerbitzuetan eta bertan arlo guztiak parte hartzen ari dira (osasuna, hezkuntza, aisialdia...).

**Gizarte Zerbitzuak**

## Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)

GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU •

948 564 275 • 948 562 107 • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)

PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net) •

Maria Saez de Albeniz Bregaña • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net)

• 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa

Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea

Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso

Zuzentzailea: Patxi Flores

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200 ale

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA  
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

**OLAZTIKO PP-KOA BIZKARTZAINAREKIN:** Olatzagutian PPko zinegotzi den Oscar Alvarezek azaldu digunez urte bat darama bizkartzainarekin. Popularrak

ez digu argitu bere alderdiko ibarreko gainontzeko hautetsiak halako babesik duten edo ez.

# sakanerria >>

>> **Altsasu**

## Langileak enpresaren jabeak

**Curvados Alzania enpresa sortu dute langileek Comebar itxi ondoren**

Comebar enpresa joan zen urtean hasi zen gaizki joaten. Lana jaitzi zen eta kontuak ez ziren garbiak. “Sorpresa handia izan zen, ez genuen espero”, dio Imanol Urretabizkaiak, Comebar enpresako langile ohiak eta Curvados Alzaniako bazkideak. Enpresa hartzekodunen lehiaketan sartu zen. “Enpresariak haien nahietara begiratzen zizuten”. Enpresa itxi zen, baina langileek aurrera jarraitzea erabaki zuten: “etxean langabezian ez gelditzeagatik enpresarekin jarraitzea erabaki genuen”.

Hartzekodunen lehiaketan sartu zenean langileak kontuak ikusteko aukera izan zuten. “Milioi erdikozorra zuten eta enpresariak bizi maila berberarekin jarraitzen zuten. Ez genuen espero hain gaizki egotea”. Salmentak, aldiz, “nahiko ongi” jarraitzen zuten; egoera eraman zuten modua izan zen arazoa Urretabizkaiaren iritziz. “Aurrera ateratzeko aukera zegoen; guk erakutsi dugu”.

Nafarroako Lan Enpresen Elkartearen (ANEL) laguntza izan zuten. Bilerak egin zituzten eta langileek enpresa berririkiteza erabaki zuten. “Dudak sortzen dira; ongi edo gaizki aterako den pen-

tsatzen duzu. Baina edo etxean gelditzen zara edo arriskatzzen zara”. Enpresaren jarduera, makinaria eta langileak berdinak dira; izena eta lantokia aldatu dira. Sei bazkide eta idazkaria daude. “Makinaria mantentzen lagundu ziguten, guri lehentasuna eman ziguten”, azaldu du Urretabizkaiak. Langileek langabezia kapitalizatu zuten enpresa irekitzeko eta diru laguntza jaso dute enpresarekin jarraitzeagatik. Hortaz, enpresaren jabeak bihurtu ziren. Apirilaren 17an Curvados Alzania Lan Sozietate Mugatua ireki zuten.

Langileen jarduna aldatu da ere. Enpresan metalezko kurbaturaketa



Enpresa berria martxan jarri duen seikotea.

aroztegia egiteaz gain, administrazio lanak egin behar dituzte ere. “Guretzako berria da hau. Lehen goikoari uzten zenion lan hori. Orain guk egin behar dugu. Joan zen urtean ikastaro bat egin nuen eta enpresak sortzeko ikasgaia

nuen, ez nuen inoiz pentsatuko enpresa bat irekiko nuela eta urte batean bat ireki nuen. Bizitzak buelta asko ematen ditu”. Etorkizuna “egoeraren arabera” ikusten dute, baina pixkanaka enpresarekin aurrera jarraitzen dute.

>> **Irurtzun**

## Atean zain

Halaxe daude Inasako langile ohiak, lantegiko ate ondoko etxolan zain. Fabriketan ez dago mugimendurik, zaindaria besterik ez dago eta dena lasai dago. Bulegoetan, ordea, bada mugimendua. Gaur bertan hartzekodunen lehiaketako kudeatzailea eta inbertsiogilea bilduko dira. Bestalde, lehiaketako hori kudeatzen duen epailea oporretan dago eta agorrilean bueltatuko da. Bulegoetatik etorriko diren albisteen zain, bitartean



Langile ohiak ate ondoko aterpean.

langile ohiak esperantzari atea zabalik diote.

>> **Altsasu**

## Lazaro Echeverriako aldeek bilerak egiten segitzen dute



Martxoaren 6tik daude greban langileak. Irudian lortia kultur gune parean.

Lourdes Goikoetxea lehendakariordearen bitartekaritzarekin, aste honetan atzera ere bildu egin dira Lazaro Echeverriako zuzendaritza eta langileen ordezkariak (ELAko 3 kide). Aldeak euren iritzia eta proposamenak mahai gaineratu dituzte eta heldu den astean, atzera ere, biltzeko aukera dago. Bitartean enpresako langileen mugagabeko grebak 143 egun egin ditu gaur; ia 5 hilabete. Kaleratu dituzten 6 lankideak enpresak berriro har ditzala eskatzen dute. Baita langileen lan eta soldata baldintzak blindatuko dituen hitzarmena ere.



# FLASHMOB • ERRAUSKETARIK EZ!

Uztailak 27, larunbata • 20:00 • Bakaikuko plaza

19:00etan entseguak hasiko dira.



Abestia

Info+: <http://errausketarizeflashmob.wordpress.com>

Koreografia  
urratsez  
urrats



## &gt;&gt; Arakil

## Arakildarrak bat



Arakildar berriak omendu zituen udalak atzo.

Urteroko hitzorduarekin bete zuten makina bat arakildarrek eta atzo Itxasperriko ermitan elkartu ziren; elizkizuna eta ondorengo otamena izan ziren aitzakia. Mezaren ondoren omenaldi eta aitortzen tartea izan zen. Udalak Jose Javier Zabaleta pilotaria eta 2012an jaiotako umeak omendu zituen. Joan den urtean dozena bat haur jaio ziren Arakilen eta haietatik 5 agertu ziren atzo Itxasperrira. Arakildar berriei harrera egiteko udalak umeen zaintzarako produktu naturalak

dituen saskitxo bana oparitu zien haien gurasoei.

Zuhatzuko frontoian jarritako karpa Arakilgo eguneko egitarauaren bigarren zatia aterpe izan zen. Herri bazkarian 167 arakildar elkartu ziren. Mahaira eseri aurretik kontzeju-etxean Kike Ábrego Mateo, Rosalia Moratal Enguix eta zendu zen José Javier Irisarri Itsasoren margolanak ikusteko aukera izan zuten. Magia, musika, joko eta jolasekin arratsalde pasa ederri izan zuten arakildarrek.

## &gt;&gt; Altsasu

## Herrikoen auzian Garmendia ez dela epaitu behar uste du fiskaltzak

Defentsaren eskaerarekin bat egin du Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak eta Joseba Garmendia Albarracín 35/02 auzian ez dela epaitu behar uste du. Altsasuarra ez epaitzeko eskatu du fiskalak lehendik ere Udalbiltza auzian "talde terroristako kide" izateagatik epaitua eta absolbitua izan zelako. Espainiako legediaren arabera ez inda inor bi aldiz epaitu delitu bera egotzita. Akusazio partikularrekeuren iritzia eman ondoren hartuko du epaileak erabakia.

Lastailaren 17an hasiko dira 35/02 auzia epaitzen Espainiako Auzitegi Nazionalean. 2002an Batasunako kide ziren 40 kide epaituko dituzte. Herriko tabernen bitartean ETA finantzatzea leporatuta epaituko dituzte. Auzipetuen artean daude Juan Kruz Aldasoro, Jaione Intxaurre eta Joseba Garmendia. Aurreneko errendako 10 urteko espetxe zigorra eskaera egin du fiskaltzak eta beste biendako 8 urtekoa.

## SAKANA

## Goi tentsioko linearen kontrako 12.000 alegazio

Erakusketak publikoan dagoen alternatibaren egokitasun faltagatik Espainiako Industria eta Energia Ministerioak "negatiboki informazioa eman eskatu dute, baita Ingurumen Ministerioak Ingurumen Baimenik eman ez dezala ere

Autopista elektrikorik ez! plataformak ostiralean Espainiak Nafarroan eta Gipuzkoan dituen gobernu ordezkari-tzetan Deikaztelu eta Itsaso lotuko litzuzkeen 400 kV-eko linearen kontrako 12.000 alegazio aurkeztu zituen. Alegazioak sinatu dituztenek goi tentsio linearen "legitimazio falta" salatu dute. Horrekin batera, beste hainbat aspektu: ingurumenari eta osasunari egiten lioken kaltea, etorkizuneko garapen aurreikuspenekin batera ezintasuna edota justifikazio falta. Sinatzaileen artean dauden: proiektuak eragiten dien herritarrak, udalak, kontzejuak, baserriarren elkarteak, ehiztariak, turismo bulegoak, kontsultorioak, partzoneriak eta beste.

## &gt;&gt; Olatzagutia

## Iturritxo bidea kaleko auzo-konpostagailuak tokiz aldatzea eskatu dute auzokideek

Zerbitzua hobetzeko, Mank-en herritarrek egindako proposamenak aztertu eta baloratzeko prest azaldu dira

Igerileku ondoan eta kontsultategiaren parean dauden bi auzo-konpostagailuak eta zintzilarioak kentzeko eskatu dute hainbat auzokidek. Kexu dira auzo-konpostagailuen usainarekin eta erakartzen dituzten euliekin. Jendeak hondakin organikoak pertzetan utzi beharrean poltsetan uzten dituela eta katuek haiek urratu eta hondakinak lurrean barreiatuta, zikin gelditzen direla esan digute.

Zintzilarioak eta auzo-konpostagailuak pasabide batean badaudela ere nabarmendu dute. Inguruan kokapen egokiagoak daudela eta horiek aldatzea eskatu dute auzokideek. Mank-ek hondakinak

kudeatzen baditu ere udal lurretan jartzen direla nabarmendu zuten.

## Salaketa

Aipatutakoak bere etxearen kontra dituen auzokide batek usainak eta euliak etxeraino sartzen zaizkiolako behin baino gehiagotan joan da udaletxera eta mankomunitatera aldaketa eskatzeko. Hala berretsi digu beste auzokide batek. Herenegun, auzo-konpostagailuen jarraipena egiten duen Mank-eko langile bat han agertu zen, bilketa sistema berria ezarri zenetik ohikoa duenez, auzo konposta egoki egiten ari direla ziurtatzeko.

Auzokideak langilea oldarkor hartu zuen, haren lantresnen kontra joz eta oihu egiten. Langileak lasaitzeko eskaerarekin batera, adie-

## Mank-en oharra

Sakanako Mankomunitateko lehendakari Aitor Karasatorre Muguruzak azaldu digunez, orain arte kexu horren berriez zuten. Karasatorrek berretsi du haiek direla aurreneko interesatuak hondakin bilketa sistema berria ongi funtzionatzeko. "Hobetzeko aldaketak egin behar badira, egiten dira. Sakandarren eskaerak aztertu eta baloratzeko prest gaude, hobetzen laguntzen digutela". Karasatorrek gogorakarri du eska-

razi zion haiek direla aurreneko interesatuak gauzak ongi funtzionatzen ez badute hobetzeko, baina proba aldi bat eta jarraipena behar

erak eta kexuak Uharte Arakilen, Etxarri Aranatzeko eta Olatzagutian zabalik dauden informazio bulegoetan egin daitezkeela, baita Lakuntzako egoitzan ere. Argibideak eskatzeko edo zalantzak argitzeko 900 730 450 telefonora hots egin daitezke ere gogoraz du. Bestalde, Interneten [www.sakana-mank.com/hondakinak](http://www.sakana-mank.com/hondakinak) blogean, [www.facebook.com/sakana-mank](http://www.facebook.com/sakana-mank) eta [www.twitter.com/sakana-mank](http://www.twitter.com/sakana-mank) sare sozialetan informazioa eskuratu daiteke. Baita [info@sakana-mank.com](mailto:info@sakana-mank.com) postaren bidez ere.

zela erabakiak hartzeko. Mank-eko eta udaleko langile baten kontra jo zuen. Lehenak mehatxu, irain eta erasoagatik salaketa jarri du.

## SAKANA

## Goiangerua eta bere lagunak

Hamargarrenez San Migeli haurrak aurkezteko jardunaldia hartu zuen Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak. 87 haurrek parte hartu zuten elizkizunean eta ondorengo gurtzean. Guztiek ere elizkizunean aingeruaren bedeinkapena jaso eta irudia gurtu zuten. Akaberan aingeruaren lagun direla adierazten duen pergamino bana jaso zuten. Haurren gurasoek, bestalde, gutun bana jaso zuten haien izenean.



Haurrak aingerua gurtzen. NEREA MAZKIARAN

## &gt;&gt;



## AHT-ren kontra

Mugitu Mugimenduak antolatuta, 50 bat txirrindulari abiatu ziren atzo Altsasutik AHTren kontrako aldarria Euskal Herrian barna zabaltzeko. 3MB-ko kideekin bildu ziren atzo.

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

[www.embutidosarbizu.com](http://www.embutidosarbizu.com)  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

**FRONTOIKO TABERNA**  
Plater konbinatuak  
Bazkariak eta afariak  
enkarguz

948 469 138  
ERKUDEN 4 • ALTSASU

**MERKE ALDIA**

**Redin**  
Lurrindenda eta kosmetika

948 562 452 ALTSASU

## » Arakil / Uharte Arakil

**Garagarzaroko uholdeak kaltetuek zerga-salbuespenak izan ditzakete****Kaltetuek eskaerak udaletxeetan lastailaren 31ra arteko epea dute eskaerak egiteko**

Nafarroako Gobernuak garagarzaroren 8,9 eta 10eko eurite eta uholdeengatik kalteak izan zituzten pertsona fisiko eta juridikoendako salbuespen fiskalak zehaztu ditu. Zerrendatu dituen udalen artean Arakil eta Uharte Arakil daude. Kalteak izan zituzten bi udalerrietako pertsona fisiko eta juridikoek dute salbuespen fiskal horiek eskuratzeko aukera. Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak edota Agrosegurok emandako kalteen balorazioa zuzenean udalei aurkezteko aukera izanen dute, izapideak sinplifikatzeko.

## » Irañeta

**Ibaiko harri-lubeta berritzen**

Ebroko Ur Konfederazioaren eta Landa Garapen Departamentuen atean jo eta ezezkio jaso ondoren, Irañetako Udalean pentsatzen hasiak ziren haien poltsikotik ordaindu beharko zutelako premia obra: abenduan emari handia zuen egun batean ibaiak bazterreko harrizko horma kaltetu zuen. Zenbait harri mugitu eta hormaren gainontzeko zatia kaltetu zuen, erortzeko zorian utziz. Herriaren iparraldean dagoen bide batean kalteak sortu zituen. Uste horrekin zeudela, Toki Administrazio Departamentuaren dirulaguntza iritsi da: 30.000 euro inguru. Udalak jarriko dituen beste 18.000 bat euroekin batera, dagoen harri-lubeta beste baten ordez jartzeko aukera izanen du. Udalak zenbait murrizketa egin behar izan ditu. Aurtengo festak egun bat gutxiago izanen dute, lau. Gainera, urtero peoi bat kontratatzen zen udal partean, baina aurten ez du egin eta egitekoak auzolan bidez ari dira egiten.

## SAKANA

**Zorri azoka, merkatu soziala: elkarlanetik sortuta****Agorrilaren 2an, ostiralean, 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko plazan egingen da estreinakoz****Hileko lehen ostiralero errepikatuko da Sakanako ekoizleak, erakundeak eta artistak biltzen dituen ekimena**

Hainbat jendek elkar hartu eta Zorri azoka antolatu dute. Eta egitasmoari zehaztasun gehiago emateko azoka soziala izendapena gaineratu diote, "ez delako merkatu arrunta izanen" azaldu du haren sustatzaileetako batek, Alaznek, Beleixe Irratian (FM 107,3). "Bertako produktuak eta bertako jendea mugituko duen azoka bat da. Baina, horretaz gain, topagune bat izateko asmoa genuen".

Hala, salerosketara mugatzen den azoka bat baino zerbait gehiago izanen da Zorri azoka, azoka soziala: sakandarren topagunea izanen da. Baita hainbat erakunderen erakusleioha ere. Zorri azoka mugimenduan dagoen zerbait ireki eta parte-hartzaile gisa definitu dute sustatzaileak: "edozein herritarrek parte har dezake jardueretan: postu bat jarritz, erosiz, erakunde baten kide izanda haren berri zabaltzea..."

Salmenta postuetan Sakanako ekoizleak edo artisauak egonen dira eta haiekin zuzeneko harremana izateko aukera izanen dute bisitariak, haren produktuen sortze prozesua ezagutzeko esatera-



Jendea Belardik Etxarri antolatutako Amalurra azokan. ARTXIBOA

ko. Zorri azokan, azoka sozialean aparteko tokia izanen dute arte adierazpenek. Aurrenekoan zuzeneko musika izanen da. Hilerro aldatuz joanen da: antzeppen txiki bat, koadro erakusketa, hitzaldia...

**Helburuak**

Ekimenak Sakanako ekonomia bultzatzea du helburu. Horretarako ibarreko produktuak kontsumitzea bulkatu eta haren sustapena egingen du, "kalitatezko produktu oso onak daudelako hemen".

Aldi berean, "apalago egon diren bertako nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza, artea orokorrean, bultzatuko ditugu".

Horrekin batera, Zorri azoka, azoka sozialek ingurumenaren zainketa eta errespetaturako deia zabalduko da. Sakandarren arteko harremanak eta elkar-laguntza bultzatzea da lortu nahi duten beste helburuetako bat.

Hilean behin antolatu nahi lukete azoka. "Sakana guztitik jendea etorrira, herrian bestelako bizia legoke eta horrek Etxa-

rriko dendei, tabernei bultzada" emanen liekeela adierazi du Alaznek Beleixe Irratian (FM 107,3). Bestalde, erakundeendako erakusleioha izan daitekeela uste dute sustatzaileek, izan ere, haien ikastaroak, hitzaldiak, propaganda azokan bertan zabal liteke. Artearendako erakusleioha bat ere zabaldu nahi da Zorri azoka, azoka sozialaren bidez.

**Parte-hartzaileak**

Zorri azokan, azoka sozialean Sakanako nekazariak eta abeltzainak (ekologikoa edo/eta bertakoa), ibarreko artisauak eta artistak, Marokoko pasta eta ogi egileak, Etxarriko Udala eta eskualdeko gizarte zerbitzuen mankomunitatea eta Sakanako erakunde publiko zein pribatuak izanen dira. Gainera, antolatzaileek hilerrokanpoko gonbidatuak ekarriko dituzte, izan ekoizle (ardo ekologikoa) edo artista.

Zorri azokan, azoka sozialean egon nahi duenak hura sustatzen duen taldean lan egitea ezinbestekoa da. Denen artean banatu dute sortu den lana eta denen artean hartzen dituzte erabakiak. Ekimenean interesa duenak eta parte hartu nahi duenak agorrilaren 2an izanen du antolatzaileekin harremanetan jartzeko aukera.

**Aniztasunetik**

Beleixe Irratian (FM 107,3) Alaznek azaldu du nola iritsi diren Zorri azoka, azoka soziala antolatzea: "Etxarri Aranazko Ranblak antolatzen hasi ginen. Azkenean eguraldiagatik bertan behera gelditu ziren. Garai berean azoka sozialak sortzen hasi zirela ikusi genuen. Haiei buruzko informazioa jaso genuen. Bestetik, Lugoerriko, produktuekologikoen kontsumitzaile taldekoa eta Belardikoak zeuden. Hainbat talde eta jenderen nahasketatik sortu da".

Haiei inguruan "harrikada" zabal-

tzen hasi ziren; jendeak ideia ontzat jo zuen. Etxarri Aranazko Udalarri aurkeztu eta "pila bat gustatu" zitzaion, "gainera gai horrekin zerbait egiten hasteko asmoa zuten".

Antzeko kezka zutenen elkartetik sortutako ideia Sakanara zabaldu dute. Artisauen, abeltzainen artean elkar ezagutzen dute. Altsasuko Amai taldeak baratze ekologikoa izateaz gain, ikastaroak antolatzen dituzte; artelanak... "Haien kasuan, barazki ekologikoak ekarriko dituzte, baina antolatzen dituzten ikastaroei bultzada eman nahi zaie".

**Truke txokoa > Zorri azoka**

**ZORRI AZOKA**  
MERKATU SOCIAL  
ostirala 2 AGOSTO 17etatik 21etara  
ETXARRI ARANAZKO PLAZAN

- barazki ekologikoak
- erakundeen informazioa eta zabalte gunea
- elkartasun gunea
- bertako produktuak
- artisautza
- fruke txokoa
- artearen erakusleioha
- musika zuzenean

19:00etatik 20:00etara sakandarrek gauzak Etxarri Aranazko plazara eraman eta han dauden beste objektuegatik trukatzeko aukera izanen dute. Horretarako mahai pare bat jarriko dira eta han egingen da trukea. Bakoitzak zer eraman duen eta zer behar azaltzeko modua izanen da. Eta unean trukea sortzen ez bada, harremana sortua dago eta trukea beste egun batean egin daiteke. Sakandarren arteko harremana sustatzeko modua izan nahi du txoko horrek.

**OLAZTIKO UDALA****Ongi pasa festetan!**

Garzia Ximenez enparantza 1 p.k. 31809  
Olazti (NAFARROA)  
Tel.: 948 56 24 46 Faxa: 948 56 25 29  
olazti@olazti.com · www.olazti.com  
Olazti kultura



## SAKANA

# Langabetuak aktibatzeko programa martxan

**Pentsaera pasibotik aktibora pasatzeko programa pilotua abiarazi dute Altsasuko enplegu bulegoak**

Hilaren 17an Altsasuko enplegu bulegoak SNEINN programari buruzko bi informazio saio hartu zituen. Haietan langabezia dauzen 24 gizon-emakume sakandarrak parte hartu zuten. Irailaren 6an programari buruzko beste informazio saio bat eginen da enplegu bulegoan eta interesatuek hantxe jaso dezakete informazioa. Programan parte hartzeko garaian hautagaien ikasketak maila eta mentalitate pasibotik-aktibora pasatzeko nahia eta gogoia izango dira.

Behin informazio saioak despeditu ondoren, hautagaien arte-

an 15 eta 20 pertsonako talde bat osatuko da. Haiek aurretik 4 hilabeteko prozesua izanen dute. "Eginez ikasi" metodologiaren bidez eta talde lana indartuz, "langabe-tuen artean mentalitate aldaketa bat sortzea da helburua, jarrera pasibo batetik, jarrera proaktibo eta ekintzaile batera aldatzeko". Josune Prietoren azalpenak dira, Mondragon Team Academy, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko Ekintzailetasun Unitatea eta MIK Ikerkuntza eta Kudeaketa zentroko kidearenak.

## Proba pilotua

Prietok azaldu digunez, saioetan parte hartu zuten langabetu gehienek 22 eta 44 urte bitartean zituz-



Saioan parte hartu zutenetako batzuk. UTZITAKOIA

ten. Haietako askok unibertsitate ikasketak zituzten eta, beste batzuek maila ertainekoak. Nork bere burua aurkeztu ondoren, programan parte hartzeko arrazoiak eman zituzten. SNEINN progra-

maren eta prozesuaren inguruko galdera zehatzak egin zituzten. Prietorekin batera Begoña Ugarte eta Jon Etxeberriak Ermuan, Markinan eta Leioa/Getxon langabetuekin izandako esperien-

tzien berri eman zieten. Azken hauen ustez, langabeek SNEINN programan "aukera berri bat ikusi zuten"

Mondragon Team Academyk Nafarroako Enplegu Zerbitzua-ren (NEZ) laguntzaz martxan jarritako programa. NEZek Sakana aukeratu du programa estreina-koz eskaintzeko, baina etorkizun-ean Nafarroako beste eskualde-etara eta gainontzeko erkidego-etara zabaltzeko aukera izan daiteke. "Baina horretarako Sakana SNEINN programaren emaitzak ezinbestekoak izango dira eta beharrezkoa izango da sakandar langabetuek programa hau aukera gisa ikustea eta 4 hilabeteko prozesuan konprometiturik azaltzea" esan digu Prietok.



# Nekazaritzari eta abeltzaintzari arreta emateko zerbitzua, bere horretan

**Gainera Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorra bezala funtzionatzen dute bulegoak**

Hilaren hasierarekin batera Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuak nekazari eta abeltzainei arreta emateko puntuen sarea berrantolatu eta modernizatzeko plana indarrean jarri du. Zenbait herritako bulegoak ixtea eta bospasei jubilatuz ez ordezkatzea ekarri duen planak Sakanan apenas izan du eraginik. Departamentutik azaldu dutenez, "arretako sare berria sare zentralizatuagoa eta indartsuagoa da, bulego nagusiak indartzen dira eta lan-zama txikiagoa zutenak murrizten dira".

Sareko bederatzi bulego nagusietako bat Irurtzunen dago, Trinitate kalean (kamineroen parean). Han bi albaitarik eta hiru administratzailek lan egiten dute. Azken horietako bat astelehenetan Lakuntzako bulego laguntzailerak etortzen da (Saka-



Irurtzungo bulegoan nekazari eta abeltzainei arreta eskaintzen zieten orain arte. Edozeinendako zerbitzua dute orain.

nako Mankomunitatearen egotzian), lehen asteazkenetan egiten zuen. Administratzaileak astean bitan ere Lekunberri eta Larraintzako bulego laguntzailetan egoten dira. Leitzakoa itxi egin da.

## Arrazoiak

Nafarroako Gobernuak 1998an arretarako 46 punturekin jarri zuen martxan sare hori. Orain 23tan izanen dira eta 26 pertsona ariko dira haietan lanean. Departamentutik berrantolaketa egite-

ko arrazoiaren artean aipatu dute abeltzain eta nekazarien kopuruak 15 urteetan behera egin dela. Departamentutik gaineratu dute on-line zerbitzuak areagotu direla eta errepideak ere nabarmen hobetu direla. "Internet bidez

etxetik animalien altak, gidak eta beste egin daitezke, gastua eta denbora aurrezteko".

## Herritar guztiendako zerbitzua

Irurtzungo eta Lakuntzako bulegoak nekazari eta abeltzainendako bulego izatetik herritar guztienera zerbitzua ematera pasa da. Bi bulego horiek Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor modura funtzionatzen dute gaur egun. Hau da, eskaerak erregistratuko dira, ziurtagiri digitala lortuko da, kexak eta iradokizunak aurkeztuko dira eta Nafarroako Gobernuaren informazioarako sarbiderako eskaerak. Gainera, ehiza eta arrantzako lizentzien berritzea izapidetu ahaliko da eta arrantza-baimenak lor daitezke.


Bulegoek ere laguntza ematen dute Nafarroako Gobernuaren Zerbitzuen Katalogoa erabiltzeko eta Internet bidezko kudeaketak eta izapideak egiteko, eta diru-laguntza, laguntza, ikastaro eta baimenei buruzko informazio eskaintzen dute.

**MAITE**  
arrandegia  
Arrain freskoak, egunero  
Hegaluzea



948 467 385 • 607 973458  
La Paz 3 • ALTSASU

**NEREA**  
ILEAPAINDEGIA



NEREA BAKAIKOA.  
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekalea)  
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

Tel.: 948 562 829  
faxa: 948 563 002

**Unamuno**  
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!



**xapatero**  
taberna



948 460 162  
Etxarri-Aranatz

**sorgiñak**  
taberna



LAKUNTZA  
948 576 357



# Udako agenda



Bakaikun aizkolariak izan ziren atzo. Bihar FlashMoba grabatuko dute, 19:00etan.

## UHARTE ARAKIL

### Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira

Larunbatero, 11:00etan Uharthe Arakilgo Zamartzen.

## FESTAK

### Bakaiku:

#### >> Garilak 26, ostirala

**12:30ean** Meza adinekoen omenez.  
**13:30ean** Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia plazan.  
**14:30ean** Jubilatuen bazkaria eta omenaldia elkartean. Ondoren Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia.  
**18:00etan** Odei Magoaren ikuskizuna Plazan.  
**19:30ean** Play Back erakustaldia.  
**20:00etan** Auzatea Gabriel Aresti Barnetegiaren eskutik.

**20:30etik 22:00etara eta 0:30etik 03:30era** Dantzaldia AiEne! taldearekin.

#### >> Garilak 27, larunbata

**11:30etik 13:30era** Haur Parkea: Segway, Craybikes, zezen mekanikoa eta puzgarriak eskolako belardian.  
**13:30ean** Auzatea Jubilatuen elkartearen eskutik.  
**16:30etik 19:30era** Haur Parkea: Segway, Craybikes, zezen mekanikoa eta puzgarriak eta Tatuai tailerra eskolako belardian.  
**19:00etan** Errausketaren aurkako FlashMob-a.  
**20:30ean** Auzatea Bakarrekoe txea Elkartearen eskutik.  
**20:30etik 22:00etara eta 0:30etik 4:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

#### >> Garilak 28, igandea

**10:00etan** Dianak trikitilariekin.  
**12:00etan** Bakaikuko festak marraztu.  
**13:00etan** Tiktara musika taldearen kontzertua Plazan.  
**17:00etan** Zikiroaren sukaldatze hasiera Plazan.  
**20:00etatik 22:00etara** Gozo-gozo taldearekin dantzagarriak eta haurrentzako jolasak. 22:00etan Zikiro afaria plazan.  
**0:30etik 2:30era** Dantzaldia Gozo-gozo taldearekin.

\*Oharrak:

-Auzatea egunero 13:00etan eta 20:00etan.  
-Herriko jostunen eta Bakaikuko Zortzikoa-

ren inguruko erakusketak Udaletxeko goiko aretoan (uztailaren 25etik aurrera, 19:30etik 21:00etara).  
-Bonba japoniarrak egunero, 20:00etan.  
-Zikiro afarirako tiketak Koxkon eta Estankoa salgai 18 eurotan, uztailaren 25era arte.

## BAKAIKUKO HERRI MUGIMENDUAREN PROGRAMA

#### >> Garilak 26, ostirala

**14:30ean** Gazte bazkaria Aiztin. Jantzi BGaren jaiak bai borroka ere bai kamiseta.  
**18:00etan** Kalejira Ttek elektrotzarangarekin. Elkarteko atetik.

#### >> Garilak 27, larunbata

**19:00etan** Flashmoba dantzatzeko entsegua plazan.  
**20:00etan** Gure osasunaren aldeko eta errausketaren aurkako flashmoba plazan.  
**22:00etan** Gazte afaria plazan.  
**01:00etan** Manifestazioa: Euskal preso eta iheslariak herrira! Plazatik.

#### >> Garilak 28, igandea: Mozorro eguna

**Arratsaldean** denok mozorrotzera!  
**20:00etan** Kontzentrazioa: Tentsio altuko linearik ez!  
**21:00etan** Mozorroren photocall. Plazan.

\*Bakaikuko Gazte Asanblada, Herrira, 3mugak batera eta Ezker Abertzalea.

## Agorrilean astero dauden deialdiak

### SAKANA

#### Hipotekek kaltetutakoen Plataforma

>> Agorrilean,  
ostiralero

**19:00etan** Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

### SAKANA

#### Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilean,  
ostiralero

**20:00etan** Irurtzongo, Lakun-

tzako, Arbizuko eta Etxarri Aranzako plazetan, elkarretaratzeak.

### SAKANA

#### Sakanako Langabetuen Asanblada

>> Agorrilean,  
astelehenero

**15:30ean** Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

### ALTSASU

#### Euskal Presoak Euskal Herrira!

>> Agorrilean,  
igandero

**20:00etan** elkarretaratzea plazan.

## ARTZAI EGUNA-2013

### 2013-08-25

### 46. URTEURRENA



### EGUNEKO EGITARAUA

IDIAZABAL

geure bezeroek aukarritutako proiektua can

Reyno de Navarra

NAFARROAKO INTERES  
TURISTIKOKO FESTA

**iraize**  
gosariak  
bokatak

948 461 630  
ETXARRI ARANATZ

MAPFRE auto eta motor aseguruak

**50%**

**MAPFRE**

ASEGURUAK

Erkuden Urteaga San Roman

Etxarri Aranatzeko ordezkaria  
Erregistro zbkia. 8572

INFORMA ZAITEZ

Kale Nagusia 4 · ETXARRI ARANATZ  
948 461 055 eurteag@mapfre.com



2012an jaiotako haurrei zapi gorria jarri zieten atzo Olaztin.

## FESTAK Olazti:

### Santa Ana

#### >> Garilak 26, ostirala: Santa Ana

**11:00etatik 13:30era** Jolas parkea: Súper jumping, gaztelu puzgarriak, zezen mekanikoa, apar festa. Futbito pistan. Euria eginez gero Erburua kiroldegian.  
**12:00etan** Hamabietakoa Santa Ana elkartearen eskutik.  
**12:30ean** Erraldoiak eta buruhandiek lagunduta mezara.  
**13:00etan** Bermut kontzertua Di sei taldearekin. San Migel plazan.  
**14:30ean** Jubilatua eta adinduendako bazkaria. Bazkalondan dantzaldia.  
**14:30ean** Haur bazkaria Sutegi parkean. Euria eginez gero eskolako frontoian.  
**15:30etik 19:00etara** Jolas Parkea.  
**18:30ean** Aizkora erakustaldia eta harri jasotzaileak. Tokiko partehartzaileak. San Migel plazan.  
**20:00etatik 22:00etara** Mariatxiak: Elegancia mexicana. San Migel plazan.  
**20:00etan** Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katiluetan San Migel plazan. 21:00etan Bonba japoniarrak Intsumisioaren plazan.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:30ean** Kontzertua: GOSE. Sarasate plazan.  
**01:45etik 03:00etara** Musika: Selektah Step. Plaza Sarasate.

#### >> Garilak 27, larunbata

**12:00etan** Hamaiketakoa Maisuena Gaztetxeak eskainia.  
**11:30etik 13:00etara** Bordetxe abere zirkua futbito pistan.  
**13:00etan** Bermut Kontzertua Sakanako trikitixak taldearekin, San Migel plazan.  
**14:30ean** Kalderete lehiaketa Sutegi parkean. (Euria eginez gero eskolako frontoian) Parte hartu nahi dutenak  
**11:00etan** Sutegi gimnasia joan behar dira suak eta butano botilak hartzera. Bazkaltzeko Udalak mahaiak, bankuak eta ardoa emango ditu.  
**18:30ean** Malabreikers: malabreak,

akrobazia eta umorea. Sarasate plazan.  
**20:00etatik 22:00etara** Musika San Migel plazan Jon Urbietta DJ-arekin.  
**20:00etan** Kakahueteak, gazta eta ardo BANAKETA zilarrezko katiluetan San Migel plazan.  
**21:00etan** Bonba japoniarrak Intsumisioaren plazan.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:00etatik 3:00etara** Musika San Migel plazan Oihan Vega DJ-arekin.

#### >> Garilak 28, igandea

**10:30ean** Txirriindulartza eskolen proba Erburua kiroldegian inguruetan.  
**12:30ean** Sari banaketa Sarasate plazan.  
**12:00etan** Hamabietakoa San Migel elkarateak eskainia.  
**13:00etan** Bermut Kontzertua Trio Veracruz taldearekin.  
**14:30ean** Bazkari herrikoa. Animatu eta etorri mozzorraturik! Sutegi parkean.  
**17:00etatik 20:00etara** Erronda txarangarekin herriko auzoetan barna (San Sebastián, Arronga, Kamiogaina, Etxe Berriak, Larratxota, Elizalde).  
**18:30ean** TXARLESTRUP. Musika eta zirkoko banda. San Migel plazan.  
**20:00etatik 22:00etara** Musika San Migel plazan Disco Live Show-ekin.  
**21:00etan** Bonba japoniarrak Intsumisioaren plazan.  
**21:00etan** Hegaluzte parrillada Vicente Argomaniz plazan.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:00etan** Ibiltariak kaleko ikuskizun ibiltaria .Compañía Artea taldearen eskutik. Irteera: Erburua kiroldegitik.  
**00:30etik 03:30era** Musika San Migel plazan Disco Live Show-arekin.

\*Oharra: Guztiz borondatezkoa da antolatzen diren ekintzetan parte hartzea. Ekintzetara joaten den jendearen portaera ez da inondik inora Udalaren ardura izango. Euria eginez gero, ikuskizunak udal pilotalekuan edo Erburua kiroldegian egingo dira. Jai egitarauan aldaketarik egonez gero, www.olazti.com-en, facebooken (Olazti Kultura) eta kartelen bidez iragarriko da.

## OLAZTIKO FESTETAKO BESTE EKINTZA BATZUK

#### >> Garilak 26, ostirala

**19:30ean** Preso eta iheslarien aldeko kontzentrazio berezia San Migel plazan. Antolatzailea: Herrira. **22:00etan** Preso eta iheslarien aldeko afaria Sarasate plazan (euria eginez gero Sutegi gimnasioan). Antolatzailea: Herrira.

#### >> Garilak 27, larunbata

**20:00etan** Errasketaren kontrako "Argazki Mundiala". San Migel plazan. Antolatzailea: Hiru Mugak Batera Plataforma.

## UHARTE ARAKIL

### Erradiokarbono bidezko datazioen inguruko azken berriak

#### >> Garilaren 27an, larunbatean

**12:30ean** Uharte Arakilgo Zamaritzeko harrera etxean. Hizlaria: Seren Griffiths, Cardiffko Unibertsitateko ikerlaria Ingelese.

## IRANETA

### Erromerian San Pedro Martir ermita zenera

#### >> Garilak 28, igandean

Herriko ermitei bisita egin diete aurrekobi igandean irintarrek. Hilaren 14an San Gregorio ermitan bildu zituen elizkizunak. Garilaren 21ean, berriz, San Migel Berrin izan

zen hitzordua. Erronda despeditzeko garai batean San Pedro Martir ermita zegoen tokian bilduko dira irintarrak, mezara. Haren ondoren udalak otamena eskainiko du.

## ALTSASU

### Arantzazu

#### >> Garilaren 28an, domekan

Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitzatik.

## ALTSASU

### Olio margolanen erakusketa

#### >> Garilaren 29tik agorrilaren 6ra

**10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara** Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Martin Fernando Lezearen koadroak.

## SAKANA

### Inkubategi kooperatiboa. Jarduera ekonomiko berriak merkatura ateratzen laguntzeko egitura

#### >> Garilaren 29an eta 30ean, astelehen eta asteartean

**10:00etatik 14:00etara** Lakuntzan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan. Irakaslea: ANEL. Sakantzen Sarea

## IRURTZUN

### Udako zinema: Blancanieves y la leyenda del cazador

#### >> Garilaren 31n, asteazkenean

**22:00etan** Irurtzungo Foru plazan.

## ETXARRI ARANATZ

### Zorri azoka, merkatu soziala

#### >> Agorrilak 2, ostirala

**17:00etatik 21:00etara** Etxarri Aranazko plazan. Barazki ekologikoak, erakundeen informazio eta zabaltze gunea, elkartasun gunea, bertako produktuak, artisauntza, truke txokoa (19:00etatik 20:00etara), artearen erakusleioa, zuzeneko musika eta beste izanen dira.

## FESTAK Etxarren:



#### >> Agorrilak 2, ostirala

**19:00etan** Txupinazoa.  
**19:15ean** 2012-2013an jaiotakoei festetako zapia ematea.  
**19:30ean** Herri Jokoen II. Mundu Txapelketa.  
**22:00etan** Herri afaria, Iruñabiderek. **00:00etan** Dantzaldia Gabenara taldearekin.

#### >> Agorrilak 3, larunbata

**11:30ean** Hamaiketakoa.  
**12:30ean** Pilota partidak.  
**18:30ean** Txokolatada.  
**19:00etan** Hiruko saskiratze txapelketa.  
**20:00etan** Dantzaldia Gabenara taldearekin.  
**21:30ean** Bingo.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**22:30ean** Herri afaria, Iruñabiderek. **00:00etan** Dantzaldia Gabenara taldearekin.

#### >> Agorrilak 4, igandea

**11:00etan** Meza.  
**11:45ean** Hamaiketako Gaita talde bikainarekin.  
**12:00etan** Herri kirol erakustaldia.  
**16:00etatik 20:00etara** Haurrendako jolas parkea.  
**17:30ean** Pilota partidak.  
**19:30ean** Pantxo Balbuenaren mexikar kantuak.  
**21:00etan** Bingo.

#### >> Agorrilak 5, astelehena

**11:30ean** Hamaiketakoa.  
**12:30ean** II. Ping Pong Mundu Txapelketa.  
**14:30ean** Herri bazkaria, Iruñabiderek. **16:30ean** Mus eta briska txapelketa.  
**17:00etan** Ipuin kontalaria.  
**00:00etan** Hau pena nik!

Aseguruak prezio hobereanean

Agentzia Bakarra

**Allianz** Aseguruak

**HNOS. SAYAS MAZQUIARAN S.L.**

etxarri@sayasmaz.com

948 111 411 · Larrañeta 19 behea · ETXARRI ARANATZ

Zabalik dagoeneko

**Lakuntzako Ostaturua**

Festa ederrak opa dizkizuegu!

HERRIKO PLAZA 14 LAKUNTZA TEL. 948 576 025  
 lakuntzakoostatua@gmail.com

# FESTAK

## Etxarri Aranatz:

### >> Agorrillek 3, launbeta:

#### Herrira egune

**12:00etan** Zapi banaketa 2012an jaiotako haurrei eta sari banaketa kartel lehiaketako irabazleei plazan.

**13:00etan** Festa hasierako suziria.

Ondoren kalejira Etxarri Aranazko buruhandiek, Uharte Arakilgo erraldoi eta buruhandien konpartsarekin, Etxarri Aranazko gaiteroekin eta jaialdia txarangarekin.

**14:00etan:** Kontzertua Jaialdia txarangarekin, plazan.

**16:00etan** Ehiza-ibilbidea. Antolatzailea: Muxar Ehiztari taldea.

**17:30ean** Pilota partidak. Antolatzailea: Gure Pilota Elkartea.

Gizonezkoen partidak: Basabe / Israel. Araña-Igoa / Ochoa-Arbizu. Alex-Lazkoz / Ansotegi-Jaso.

Emakumezkoen partidak: Jaka-Lasa / Andrea Aiora. Olaia-Izar / Atxa-Ane

**17:30ean** Kalejira, Jaialdia txarangarekin.

**18:30ean** Euskal dantzen ikuskizuna plazan: Etorbizuna euskal dantza taldea.

**20:00etan** Manifestazioa Herrirak deituta.

**20:00etan:** Auzatea: Hartzabal, Etxe-Azpi, Udaberri, Larrañeta eta Karriestu elkarteek prestatuta.

**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:30etik 4:30era** Gaupasa Tximeleta taldearekin.

### >> Agorrillek 4, iyendie:

#### Arañaz elkartien egune

**10:30ean** Dianak Etxarri Aranazko gaiteroekin.

**11:30ean** Auzatea Gure Etxea Elkarteak prestatuta.

**12:00etan** Haurrendako joko birziklatuak, ludoteka eta japoniar bonbak.

**12:00etan** Meza nagusia.

**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.

**13:30ean** Dantza ikuskizuna "Detstvo" Ekaterimburgo. Errusia.

**18:00etan** Haur animazioa plazan: Kutzoren pantomimak.

**19:00etan** Herri kirolak plazan. Laguntzailea: Insalus. Aizkoran: Ion Rekondo-Juanjo Erdozia. Ander Erasun-Goizeder Beltza.

Aritz Goñi-Mikel Agirre. Iban Resano-Josu Agirre. Harriari: Aitor Oiarbide eta Inaxio Perurena.

**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Alaiki taldearekin.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Alaiki taldearekin.

### >> Agorrillek 5, astelehena: Kuadrilla egune

**10:30ean** Dianak Jaialdia txarangarekin.

**11:30ean** Auzatea Etxe-Azpi elkarteak prestatuta.

**12:00etan** Haurrendako Bordetxe abere zirkua.

**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.

**13:30ean** Bertso-saioa plazan: Arkaitz Estiballes, Unai Iturriaga, Beñat Gaztelu-



Herriko musikariak gurdira igoko dira berriro, kontzertu inprobisatu bikaina emateko prest.

mendi eta Eneko Lazkoz.

**18:00etan** Haurrendako kale-ikuskizuna plazan: Gari, Montxo eta Joselontxo.

**19:00etan** Kalejira, Jaialdia eta Nesken txarangekin.

**20:00etik 22:00etara** Dantzaldia Drindots taldea.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Drindots taldearekin.

### >> Agorrillek 6, astiertie:

#### Haurren egune

**11:30ean** Auzatea, Udaberri elkarteak prestatuta

**11:30etik 13:30era** Txu-txu trenaren herrian barna.

**11:30etik 13:30era** Jolas-parkea: umeendako puzgarriak, zezen mekanikoa eta zappy elektrikoak.

**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.

**13:30ean** Kontzertua plazan: Keltiar Aldea.

**16:30etik 19:00etara** Txu-txu trenaren herrian barna.

**17:00etan** IX. Futbol-plaza txapelketa, Mikel Arregi plazan. Antolatzailea: Osasuna Fundazioa.

**17:00etik 19:00etara** Jolas-parkea.

**19:30ean** Sakanako I. Play-Back

Txapelketa plazan: Sariak: Bakarba edo binaka aritzen den onenari: 75 euro.

Taldeak aritzen den onenari: 100 euro. Originalenari: 75 euro. Euskal abesti onenari: 75 euro.

**20:00etik 22:00etara** Dantzaldia

Gaubela taldearekin.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Gaubela taldearekin.

### >> Agorrillek 7, astizkena:

#### Aittun-amiñan egune

**10:00etan** Pilota partidak. Antolatzailea: Gure Pilota elkartea.

Mutilen partidak: Unai-Unai / Mariñelarena-Lopez de Sabando. Alzelai/ Araña.

Palomares-Urrestarazu / Albarrazin-Alzelai.

Igor-Pozueta / Erdozia-Lopez de Zubiria.

Senar-Nicolas / Mikeo-Lizarraga

Nesken partidak: Elai-Saioa / Aroa-Irati.

Lorea-Naroa / Maddalen-Ainhoa

**11:30ean** Auzatea Hartzabal elkarteak prestatuta.

**12:00etan** Meza.

**12:00etan** Emakumeen triki-bertso poteoa, Emakumeen Batzordeak antolatuta.

**12:00etan** Sukaldean festa, haurrendako ikuskizuna.

**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.

**13:30ean** Kontzertua plazan: La Ribera Canta jotak.

**14:30ean** Aittun-Amiñan bazkaria.

**14:30ean** Bazkaria: Emakumeen Batzordeak antolatuta.

**16:00etan** Aitor soinu-jole eta musikaria, aittun-amiñan bazkarian.

**17:00etan** Txirindularitza. Antolatzailea: Aralar Txirindulari Taldea. Laguntzailea:

Insalus.

**17:15ean** Pilota partidak: Frontenis pala partida bereziak. Antolatzailea: Gure Pilota.

**19:30ean** Kale animazioa plazan: Txarlestrop. Zirika Zirkus Taldea.

**20:00etik 22:00etara** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**00:00etik 3:00etara** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

### >> Agorrillek 8, ostegune:

#### Kintuen egune eta parte-hartze egune

**10:30ean** Dianak Jaialdia txarangarekin (Kintoak etbez etxedirua eskatzen duten eguna). Urteko kintoek antolatuta.

**11:30ean** Auzateko jolasak. Urteko kintoek prestatuta.

**11:30ean** Haurrendako jolas ibilbidea plazan. Guraso Elkarteak antolatuta.

**13:00etan** Etxarriko buruhandiak.

**13:00etan** Herriko musikarien emanaldia. Herriko musikariak antolatuta.

**17:00etan** Kalejira Jaialdia Txarangarekin.

**17:30ean** Haurrendako jolasak. Urteko kintoek antolatuta.

**18:00etan** Poteo abestia. Etxarri Aranazko abesbatzak antolatuta.

**19:00etan** Gurdi-rock herriko musikariak antolatuta.

**22:00etan** Zezensuzkoa.

**23:00etan** Alerta Gorria eta Vendetta taldeen kontzertua.

\* Oharrak: Jaialdia txarangaren emanaldiak urteko kintoek antolatu dituzte.

## ETXARRIKO HERRI MUGIMENDUBAN EGITARAUE

### >> Agorrillek 3, launbeta:

#### Euskal preso eta iheslari politiku-egune

**10:30etik 12:30era** EGAn futbito txapelketan finala.

**13:00etan** Txupinazua denok banderola-kin!

**14:30ean** Herri bazkaye eta omenaldiye.

**19:30ean** Euskal preso eta iheslariyen aldeko manifestaziye.

### >> Agorrillek 4, iyendia

**8:00etik aurria** Gosayek karpan.

**20:00etan** Kostillada Gaztetxien

### >> Agorrillek 5, astelena: Kuadrillen egune

**14:30ean** Herri bazkaye karpan. Bazkal ondoren sorpresa.

**19:00etan** Kuadrillen igoera gaztetxetik.

### >> Agorrillek 6, asteartie

**18:00etan** Zirkue gaztetxien.

**22:00etan** Rap gaube: ZTK Rap, RPV eta Emauseko Raperoak.

### >> Agorrillek 7, astizkena:

#### Gazte egune

**12:30ean** Pillota partiduek eskoletan.

**14:30ean** Bazkaye gaztetxien. Kafe, kopa eta bingoooo!!!

**17:00etan** Fatxai tiro!

**18:00etan** Barken jeitxiera Burundan bera.

**20:00etan** Kontzentraziye plazan: Gazte bat gehiago Ez!

**23:00etan** Kontzertubek gaztetxien: Azken ohiu eta Hesian. Ondoren gaupasa DJ Bull-ekin gazte txoznan.

### >> Agorrillek 9, ostiela: Inutilan egune

**10:00etan** Burrenbadan herriyen zier.

**11:00etan** Sardin jana plazan.

**14:00etan** Herri bazkaye.

**17:00etan** Inutilen desfile.

**20:00etan** Kontzentraziye plazan. Etxean eta aske nahi ditugu! Lortuko dugu!

**20:30etik aurria** Musike plazan: Laket.

## ETXARRI ARANATZ KARPAKO PROGRAMAZIYUE

Afal ondoren giro paregabe!!!

### >> Agorrillek 4, iyendie

Fermin Valencia

### >> Agorrillek 5, astelena

Habanatik Las dos D.

### >> Agorrillek 6, astiertie

Berto afaye Julio Soto vs. Iker Zubeldia.

### >> Agorrillek 7, astizkena

Hutsun txalaparta.

### >> Agorrillek 8, ostegune

Bideo proiektziyue (festak, mobilizazi-yuek...)

Oharra: Herrira txoznan etxeko frituek eta brabak egunio.

**xalok**  
CENTRO ESTETICO DEPORTIVO Y NUTRICIONAL

erabilera anitzeko gunea  
kontsultagunea  
estetikagunea  
gimnasioa

TXANDA ESKATU  
948 460 993 / 661 541 431  
www.xalok.es  
Burundabido 14 - Etxarri Aranatz

**HOSTO**

**GORRI**  
altzariak

altzariak eta kortinak

Zugarreta 7 · Etxarri Aranatz  
948 460 359 · 679 414 731  
www.hostogorri.com

**DERRY TABERNA**  
ETXARRI ARANATZ

eguneko menua  
garagardorik hoberenak  
etxean egindako pizzak  
musika, zuzenean  
bokatak  
plater konbinatuak  
katerin zerbitzua  
parranda

SAOR DOIRE  
tel. 948 461 703

**ALTSASU**

**Panticosa-Artouste**

>> Agorrilaren 3an eta 4an, larunbatean eta domekan

Altsasuko Mendigoizaleak elkarteak antolatuturik.

**IRANETA**

**Irintarrak Aralarko santutegira**

>> Agorrilaren 4an, igandean

Aurreko igandeetan herriko 3 ermitetan elizkizunak egin ondoren, irintarrek erromes aldia Aralarko santutegian despedituko dute. Meza-aren ondoren otamena eskainiko du udalak. Eta menditik jaitsi ondoren, Irañetan, herri bazkaria izanen da. Udaletxean eman behar-ko da izena.

**ETXARRI ARANATZ**

**IX. 3x3 Futbol-Plaza Txapelketa**

>> Agorrilak 6, asteartea

17:00etan Etxarri Aranzako Mikel Arregi plazan. Osasuna fundazioak antolatuta. 8-12 urte arteko neska-mutikoei har dezakete parte. Hiru kidez osatutako taldeak lehiatuko dira txapelketa honetan. Izena ematea egunean bertan. Saiklatuek Iruñean jokatu den final handian hartuko dute parte.

**IRURTZUN**

**Udako zinema: La vida de Pi**

>> Agorrilaren 7an, asteazkenean

22:00etan Irurtzungo Foruplazan.

**FESTAK Zuhatzu:**

>> Agorrilak 9, ostirala

20:00etan Txupinazoa.  
22:00etan Autogestionatutako afaria.  
24:00etan Dj-a eta karaokea.

>> Agorriak 10, larunbata

12:00etan Puzgarriak.  
14:30ean Bazkaria. Haragi errea.  
17:00etan Mus eta briska txapelketa.  
17:00etan Haurren emanaldia pirata koadrila handi batekin.  
18:30ean Txokolatada.  
19:30ean Dj Richi eta karaokea.  
22:00etan Herri afaria.  
24:00etatik aurrera Dj Richi.

>> Agorrilak 11, igandea

12:00etan Meza.  
12:00etan Buruhandiak, puzgarriak eta jolasak.  
14:00etan Kaldereteak.  
17:30ean Haur emanaldia, pertsonaia barregarri batekin.  
20:00etan Hau pena nik.

**IRURTZUN**

**Ur parkea, puzgarriak**

>> Agorrilaren 10ean, larunbatean

15:30etik 19:30era Irurtzungo igerilekuan.

**UHARTE ARAKIL**

**Beriainera erromeri ederra**

>> Agorrilak 11, igandea

Agorrilaren 7a San Donato eta San Kaietano eguna da. Antzinatekegun horretan uharte arakildarrek erromeria egiten zuten Beriaingo ermitara, baina egun agorrilaren 7a erreferentziatzen hartuta igande gertue- nean, ospatzen da aipatu erromeria. Oso erromeria polita izaten da eta jende asko biltzen da. Uhartearre- kin batera, makina bat sakandar eta Oloko ibarreko jendea bilduko da Beriaingo malkor gainean. Lehenik eta behin, elizkizuna har- tuko du ermitak, 11:00etan. Uhar- te Arakilen gordetzen dituzten



Urtero jendetza biltzen da Beriaingo erromerian. Aurten agorrilaren 11n izanen da, Uhartea Arakilek antolatuta.

erlikia zaharrak, San Donato eta San Kaietanorenak izango direnak, gurtzera igotzen dituzte. Elizkizun- naren ondoren Uhartea Arakilgo herriak auzatea eskaintzen du: gazta txorizoa, urdaia, ardoa... eta ondoren, Oloko udalek kafea eta pastak. Erromeria, berez, Uhartek antolatutakoa da baina bere kabuz, eta festan laguntzeko asmoz, kafea eta pastak eramaten hasi ziren Oloko bailarako herritarrak eta dago- eneko ohitura bilakatu da.

**ALTSASU**

**Udako gaua izarrekin**

>> Agorrilaren 13an

22:00etatik aurrera Altsasuko Dantzalekuko igerilekuan. Ortzia nolakoa da? Ikusiko dugu? Udako gaua izarrekin. Izarrak eta ortzia zuzenean ikusteko aukera, doan, Altsasun, Intxospiapunta gaz- tegunearen eskutik.

**IRURTZUN**

**Udako zinema: Sin frenos**

>> Agorrilaren 14an, asteazkenean

22:00etan Irurtzungo Foruplazan.

**FESTAK Urdiain:**

**Andramauztuko festak**

>> Agorrilak 14, asteazkena

12:00etan Festen hasierako etxajua, ardoa eta gazta banatuko da.  
Buruhandiak  
12:30ean Elorri Folk taldeak plaza folk musikaz girotuko du.  
16:00etan Brixka txapelketa Kaluxan eta mus txapelketa Mareon.  
17:30ean Erroskilla tailerra plazan.  
19:00etan Urdiaingo gazteak antolatutako futbol 7 txapelketa finala futbol zelaian.  
20:00etatik 22:00etara Disko festa.  
24:00etatik 3:30era Disko festa.  
>> Agorrilak 15, osteguna  
12:00etan Meza Aitziberko basilizan.

14:30ean Bazkaria Urritzin trikitilari- ek alaitua.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia plazan Trikitiens taldearekin.  
23:30etik 3:30era Dantzaldia plazan Trikitiens taldearekin.

**ETXARRI ARANATZ**

**Amerjinar egune**

>> Agorrilak 15, osteguna

Arratsaldeko zazpitan abiatuko dira udal agintariak txistulariak lagunduta udaletxe paretik Andra Mari ermitarantz. Iritsi eta etxajua bota ondoren, merendatzera eseri- ko dira etxarriarrak. Hura despedi- tuta kintoek dantzakia dantzatuko dute eta kalejiran herrira jaitsiko dira asko eta asko. Egonera ona bada- go, mahaien bueltan elkarrizketa eta kantu saioak luzatu egingen dira. Pla- zan bitartean, 19:30etik 21:00eta- ra eta 22:00etatik 1:30era dantzal- dia izanen da Orots taldearekin.

**MARINELETXE HARATEGIA**

Ongi pasa festetan!

948 46 19 80  
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6  
Etxarri Aranatz

**ENERITZ**

ileapaindegia  
Ongi pasa festetan

tel. 948 567 071  
Kale Nagusia 49  
ETXARRI ARANATZ

**ENERITZ**

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!

ENERITZ SANCHEZ UGARTEMENDIA  
Artola Kalea 4 behea  
Etxarri Aranatz  
948 461 972

## FESTAK Dorrao:

### >>> Agorrilak 15, osteguna: Ama Birjinaren eta jubilatuen eguna

**13:00etan** Festa hasierako suziria.  
**13:00etan** Meza nagusia.  
**14:00etan** Auzatea eta trikitixa.  
**19:00etatik 22:00etara** Txaranga kaleetan zehar.  
**21:00etan** Auzatea.  
**1:00etatik 4:00etara** Joselu anaiak taldearekin dantzaldia.

### >>> Agorrilak 16, ostirala:

#### Umeen eguna

**18:00etan** Haurren jokoak eta txokolata da.  
**20:00etatik 22:00etara** Drindots taldearekin dantzaldia.  
**21:00etan** Auzatea.  
**22:00etan** Herri-afaria.  
**1:00etatik 4:00etara** Drindots taldearekin dantzaldia.

### >>> Agorrilak 17, larunbata

**18:00etan** Aizkora apustua: Floren Nazabal, Iban Resano, Juanjo Lope zeta Goizeder Beltza.  
**20:00etan** Sardinada eta txistorrada.  
**20:00etatik 22:00etara** DJ.  
**00:00etatik 4:00etara** DJ.  
**5:00etan** Urteroko errolda.

### >>> Agorrilak 18, igandea

**9:00etan** Erroldako gosaria.  
**20:00etatik 22:00etara** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.  
**21:00etan** Auzatea.  
**1:00etatik 4:00etara** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.  
**04:30ean** Gaixoa ni!

## ITURMENDI

### Aritzaga ermitara

#### >>> Agorrilak 15, osteguna

Ama Birjinaren egunean, eguerdian, Aritzaga ermitan meza izanen da. Ondoren, Aritzaga elkarteak auzatea eskainiko die bertaratzen diren guztiei. Sakanako eraikin erromani-koetako bat bisitatzeko aitzakia.

## FESTAK Satrustegi:

### >>> Agorrilak 16, Ostirala

**20:00etan** Txupinazoa.  
**20:30ean** Dantzaldia Dj Asierrekin.  
**22:30ean** Herri afaria.  
**01:00etan** Dantzaldia Dj Asierrekin.

### >>> Agorrilak 17, Larunbata

**12:00etan** Buruhandiak eta zezentxoak. Haurrendako puzgarriak.  
**13:00etan** Paella lehiaketa.  
**15:00etan** Herri bazkaria.  
**18:00etan** Jokoak, puzgarria keta haurrendako.  
**20:00etan** Dantzaldia Dj Asierrekin eta haurren moztorroak.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:30etik aurrera** moztorro dantzaldia Dj Asierrekin.

### >>> Agorrilak 18, Igandea

**12:00etan** Meza nagusia.  
**13:00etan** Otamena eta musika eliz-atarian.  
**18:00etan** Manu Magoa, magia erakustaldia.  
**18:00etan** Satrustegiarren arteko herri hirolak.  
**19:30etik aurrera** moztorro dantzaldia Dj Asierrekin.  
**22:00etan** Festa bukaera. Hau pena, nik!



Dorraoko festetan ez da auzaterik faltako.

## LIZARRAGA

### Harleze eguna



### >>> Agorrilak 17, larunbata

Lizarragarrek 8:00ak aldera dute hitzordua jarrita. Bildu eta mendira igokodira. San Adrian ermita inguruan gosalduko dute 10:00ak aldera, eta, ondoren, Harleze joko dute. Lezean sartu-irtena egin eta herrirako bidea hartuko dute. 14:30ean, frontoian, lizarragarrek mahaira eseriko dira, herri bazkarian. Ondoren, 17:00etan, kalejiran ibiliko dira, jan-edateko bospasei tokitan geldialdiak eginez. Erronda 21:00etan despidituko da. 21:30ean elkartean afaria izanen da eta ondoren dantzaldia izango dute. Don Jose apaiza hil zenean galdu

zen Harleze eguna. Gazteak bezperatik igotzen ziren mendira eta karpin-dendetan pasatzen zuten gaua. Hurrengo egunean gainerako herritarrek igotzen ziren eta egun pasa ederra ospatzen zuten mendian, bazkaria eta guzti. Baina esan bezala, ospakizuna galdu egin zen eta duela bizpahiru urte berreskuratu dute lizarragarrek.

## ARBIZU

### Arbizun Sandindeiko erromeria

#### >>> Agorrilak 17, larunbata

Arbizuarrek Sandindeiko erromeria ospatzen dute 2005etik. Sanjuanetatik kanpo herritarrendako jai egun batean biltzeko premia ikusi zuten eta erantzuna bikaina izan zen. Erromeriak indartsu jarraitzen du. Aurten agorrilaren 17an dute hitzordua. Arbizuarrek Aralar aldera joko dute, Sandindeiko bordaren inguruan egun pasa egiteko asmoz. Goizean goiz abiatuko dira eta hara iritsitakoan, indarrak hartzeko gosaria izanen dute. Bazkal aurrean eta bazkal ostean musika eta dantzarik ez da faltako. Iluntzerako, festa giroa herrira eramanen dute. Musi-

ka lagun, parranda ordu txikietaraino luzatuko da.

## ALTSASU

### Pala playa eta cocktail txapelketa

#### >>> Agorrilak 17, larunbata

**9:00etatik aurrera** Foru plazan Altsasuko Peñek eta Altsasuko Gazte Asanbladak pala playa txapelketa deitu dute agorrilaren 17an, Foru plazan. Goizeko 9:00etatik 11:00etara inskripzioak egiteko aukera izango da (txapelketan parte hartzeko 3 euro, eta txapelketan eta bazkarian parte hartzeko, 10 euro. Soilik bazkarira joateko, 8 euro) eta goizeko 11:00etan hasiko da txapelketa. 14:30ean geldialdia egingo dute, bazkaltzeko, eta 16:00etan pala playari ekinen zaio berriz eta cocktail txapelketa abiatuko da. Interesatuek prestatutako cocktail txosnan aurkeztu behar dituzte, eta garaileak saria izango du. Txosnan, 5 txupitok 2 euroko prezioa izango dute eta aldi berean bozka emateko txartela jasoko dute. Bitartean jolasak egongo dira. 20:00etan cocktail txapelketaren amaiera izanen da. Gaueko kontzertu sorpresa iragarri dute eta txosna zabalik egongo da.

## LAKUNTZA

### Lakuntzako Pertzan, Aralarrera

#### >>> Agorrilak 18, igandea

Istorkoak dio lakuntzarrak San Migel santutegira Asulbizio festa ospatzera zihoazela, eta bidean asto gainean tripotaz beteta zeramaten pertza erori zitzaizela. Egositako tripotabatek Uharteko errotariari begian jo eta betoker utzi omen zuen. Gertakari horren kontura burla asko egingiten zieten lakuntzarrei. Baina burla horri buelta emanez, Lakuntzako Pertza izeneko elkarteak sortu zuten lakuntzarrek eta aipatu elkar-tea Lakuntzako Pertza eguna antolatzen hasi zen.

Festa Ama birjinaren ondoko igandean ospatzen da, aurten agorrilaren 18an. Goizeko 6:00etan Aralar-ko santutegiko bidea hartuko dute lakuntzarrek Lakuntzako Pertza elkartetik, tripotak, ogia eta ardoa daramatzan astoarekin batera. Bide erdian, behin pertza erori omen zen tokian, geldialdia egingen dute tripotak jateko. Eta segidan San Migelera helduko dira.

Aralarko santutegian meza 11:00etan izanen da. Haren ondoren tripotak, ardoa eta ogia banatuko ditu Lakuntzako Pertza elkarteak, eta Bil-toki gazte elkarteak kideek Lakuntzako Pertza dantza dantzatu dute. Bazkaltzera Guardetxera jaitsiko dira lakuntzarrak. Guardetxean bertan dantzaldia izanen da, 16:30etik 18:30era, eta, geroago, Lakuntzara jaitsita, 20:00etatik 00:00etara dantzaldia izanen da.



**TRASKIL**  
MODA DENDA

**UDAZKEN-NEGU DENBORALDIA**

**Ongl paSa feSte TaN!**

ETXARRI ARANATZ

**LEKU ONA**  
taberna

Afaltzeko bokata goxo-goxuek!

AHT gelditu!

HITZEIN EUSKIAS!!

Etxarri Aranatz

**IRURTZUN**

**Udako zinema:  
Vicky bikingoa eta  
Thorren mailua**

**>> Agorrilaren 21ean,  
asteazkenean**

**22:00etan** Irurtzungo Foru plazan.

**FESTAK  
Lakuntza:**

**>> Agorrilak 24, larunbata**

**9:00etan** Platerari tiro.  
**12:00etan** Ezkil errepika.  
**12:30ean** Txupinazoa. Txaranga, auzatea eta 2012an jaiotakoei zapi banaketa.  
**13:00etan** Konpartaren 10 urteurrenari omenaldia.  
**13:30ean** Errepresaliatuen aldeko brindisa Haizean.  
**15:00etan** Errepresaliatuen aldeko herri bazkaria.  
**18:00etan** Elai Alai dantza taldea.  
**20:00etan** Auzatea.  
**20:00etatik 22:00etara** Musika Tximeleta dantza taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etatik 4:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

**>> Agorrilak 25, igandea**

**12:30ean** Meza.  
**13:00etan** 2Dak ahizpa kubatarrak.  
**13:00etan** Auzatea Lakuntzako Pertza elkarrearen eskutik.  
**18:00etan** Euskadiko Aizkolarien 3º mailako kanporaketa eta harri jasotzailea.  
**20:00etan** Kontzentrazioa errepresaliatuen alde.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Al

ENE! musika taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etatik 3:00etara** dantzaldia Al ENE! Taldearekin.

**>> Agorrilak 26, astelehena:**

**Haurren eguna**  
**12:30ean** Erraldoiak eta buruhandiak.  
**11:30etik 13:00etara** Puzgarriak, ludoteka, crazy bikes, segway elektrikoak...  
**13:00etan** Auzatea gurasoen eskutik.  
**16:00etatik 18:00etara** Puzgarriak ludoteka, crazy bikes, segway elektrikoak...  
**18:00etan** Merendola.  
**18:30ean** Tximino jakintsua kale antzerkia herriko plazan.  
**20:00etan** Buruhandiak.  
**20:00etatik 22:00etara** Musikaldia Tirry and Terry.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etatik 3:00etara** Musikaldia Tirry and Terry.

**>> Agorrilak 27, asteartea**

**11:30ean** Kalderete txapelketa.  
**12:00etan** Meza.  
**12:00etan** Kalba jolasa.  
**13:00etan** Auzatea, Gure nahiaren eskutik.  
**13:15ean** Kaldereteen sari banaketa.  
**13:00etan** Mariatxiak.  
**14:30ean** Aittun-amonen bazkaria.  
**17:00etan** Zinten jolasa.  
**17:00etan** Iñaki akordeoilaria.  
**17:30ean** Itxes-itxe berreskuratzen herriko plazan txarangarekin? (txarangaren erantzunaren zain gaude).  
**20:00etan** Auzatea.  
**20:00etatik 22:00etara** Amets taldea.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etatik 3:00etara** Musikaldia Amets taldearekin.

**>> Agorrilak 28, asteazkena**

**13:00etan** Bertso saioa.  
**13:00etan** Auzatea, Haizearen eskutik.  
**17:30ean** El gran circo social antzezlan. Kalejira batekin hasiko da herriko plazan.  
**20:00etan** Auzatea.  
**20:00etatik 22:00etara** Musikaldia Ttanttaka taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etatik 3:00etara** Musikaldia Ttanttaka taldearekin.



Konpartaren 10. urteurrena denez, omendu egingo dute.

**>> Agorrilak 29, osteguna:**

**Gaztearen eguna**  
**12:00etatik 14:00etara** Iñaki akordeoilaria.  
**14:30ean** Gazte bazkaria. Piropo txapelketa. Eta bertsolariekin trikipotea.

**19:00etan** Kontzertuak herriko plazan.  
**20:00etan** Buruhandiak.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etan** Kontzertuak herriko plazan.

\*Oharra: Egutero, 13:00etan eta 20:00etan, auzatea. Egutero, 20:00etan, buruhandiak.

**IHABAR**

**Bienvenido Don Quijote**

**>> Agorrilaren 24an,  
larunbatean eta agorri-  
laren 25ean, igandean**

**21:00ak aldera** Ihabarko elkarrearen parean. Ihabartarren antzezlan.

Herriko festen iragarle bihurtu da azken 5 urteetan aste bat lehenago Ihabarko Antzerki Tailerraren antzezpina. Aurtenera, seigarrenez, ihabardar antzerkizaleek euren paperak jokatu dituzte publikoaren aurrean. Jon Barbarin zuzendariak azaldu digunez, aurtien 14 bat aktore ditu bere esanetara. Guztien artean TEN Pinpilinpausa taldeak aspaldi taularatutako obra baten bertsioa antzeztuko dute: Bienvenido Don Quijote, Mantxako On Kixote obra ezagunaren moldaketa bat.

Psikiatriko bateko "eroak" eta haien zaintzen dituen moja dira protagonistak. Kalera aterako dira eta antzezpina bat egin beharko dute. Haietako bat On Kixote dela sinistuta dago. Eta han hasiko zaizkio komerriak buruhandi moduko erraldoiak, Donejakue bidea egiten ari diren fraide eta mojak edota makarra bat eta haren bikotea agertzean. On Kixote batetik eta bestetik jasoko du. Aldean asto itxura duen Rocinante "zaldia" izanen du beti.

**KARASATORRE**  
HESTEBETE ARTISAUAK

Artisau erara egindako  
hestebeteak  
Autozerbitzua  
Etxeko tripekiak

Ongi pasa festetan!

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

**ETXARRI KOMERTZIALA**  
altzari eta sukaldeak  
www.comercialetxarri.com

Beasaingo errepidea · ETXARRI ARANATZ · Tel. eta faxa: 948 460 021

**TANIA**  
ARRAINDEGIA

948 576 300  
Mikel Arregi 6 · LAKUNTZA

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

**Aliprox**

Larrañeta z/g LAKUNTZA  
tel. 948 576 246

**UHARTE ARAKIL****Artzai Egunak  
46 urte**

>> **Agorrilaren 25ean, goizeko 10:00etatik aurrera** egun osoko jaia Uharte Arakilen

Agorrilaren 25ean 46 urte beteko ditu Uharte Arakilgo Artzai Egunak. Aralar Mendi elkarteak urte horiek guztiak daramatza artzainen festa bilakatu den jai herrikoi eta polita antolatzen.

Gazta txapelketa garrantzitsua eta berezia da, zenbaki potoloak mugitzen dituen enkantearekin, eta ardi mozte txapelketa, ikusgarria. Horrekin batera mota guztietako jaki eta gutziakeskaintzedituzten hamai-ka postu, musika lagun primerako giroan mokadutxo goxoak hartzeko txosnak eta tabernak, artisau postuetangaltzeko aukera, gazta bikainak erosteko parada... arratsaldean txakurrek artzainen aginduei nola egiten dieten kasu ikustea ahaztu gabe.

Aralar Mendi elkarteak garai bateko artzaintzaren bizimodua gogora ekarri nahi du festarekin, eta, aldi berean, egungo artzainak omendu nahi ditu festa giroan.

**Ardiak herritik pasako dira**

Badira 3 urte artalde batek herria iparretik hego aldera gurutzatzen duela, garai batean udan Uharte Arakilgo artaldeak Aralar menditik

Beriainera nola pasatzen ziren gogoratzen duena. Aurten, aldiz, artaldeak Uharte Arakil herrierdia zeharkatuko du. 11:30ean izango da, Ordiziako azokan egiten den antzera. "Aurten artzainek dituzten arazoengatik, laguntzak murriztu edo erabat kendu baitzikiete, Aslana Elkarteko lan teknikoak ere kolokan jarritz, artaldean pasaera hau modu berezian egingo da, munduak jakin dezan artzainen egoera" adierazi digu Artzai Egunaren antolatzaile eta Idiazabal Jatorri Izendapeneko presidente Joxe Mari Ustarroz uhartearrak.

**Omenduak: Victor Manuel Sarobe eta Pedro Quintana olaztiarra**

Urtero omenaldietarako tartea dago Artzai egunean. Ustarrozek adierazi digunez, lehen edizioetako gazta lehiaketan sarritan parte hartu izandako Victor Manuel Sarobe Pueyo iruindarra omenduko dute, in memoriam, iaz zendu baitzen. "Pertsona kultua, gastronomia inguruko liburuak idatzi zituen, eta bere idatzietan gazta eta jaki onak defendatu zituen". Bestalde, artzain txakur lehiaketan hainbat urtez parte hartu zuen "eta beti gure eguna defendatu eta gozatu zuen" Pedro Quintana Bengoetxea artzain olaztiarra omenduko dute, in memoriam. Aurreko urteko azaroaren 24an zendu zen bere garaian borroka librean hirutan munduko txapelduna izan zen artzain olaztiar famatua, "Hercules nafarra" ezizenarekin famatua izan zen borrokalaria.



Polita izaten da Artzai Eguneko artzain txakur lehiaketa.

**46. ARTZAI EGUNA.  
EGITARAUA****Artzainen  
omenaldi festa**

**10:00etan** Epaimahaiaren hautaketa. Aurrekoa.  
**10:30etik 14:30era** Nafarroako ardi latxa esne gordinaz egindako gaztaren XXXII. txapelketa. Saritutako gazten enkantea, dastatzea eta gaztaren feria.  
**10:30etik 13:30era** Nafarroako ardi latxaren erakusketa eta esne-ekoizpen lehiaketa. Latxa arrazako ardi aukeratuaren X. lehiaketa nazionala (hau da bertako ardi latxaren txapelketarik garrantzitsuenak).  
**11:30ean** Aralar-Andiara aldaketa egiten, herriaren barna artaldea pasako da. Goizean Artzain bat betidaniko erara gazta egiten ikusi ahal izango dugu Donibane plazan.  
**11:00etatik 13:00etara** Nafarroako XXXVI. ardi mozte mekanikoaren txapelketa.  
**11:00etatik 12:00etara** Euskal artzain txakurren, Pirinioetako artzain txakurren

eta galzorian dauden arrazen XXI. erakusketa.

**12:00etan** Agur Jaunak. Artzain egunarekin eta kulturarekin parte hartu duten pertsonen omenaldia.

**12:15ean** XXIX. ardi gisatuaren txapelketa eta dastatzea.

**12:45ean** Nafarroako ardoen XIX. dastatzea.

**13:30ean** Goizeko lehiaketa guztietako sariak eta txapelak banatuko dira. Ondoren, gazta erdi irabazlearen enkantea plazan.

**14:30ean** Uharte Arakilgo frontoi estalian herri bazkaria: Nafarroako axuria parrilan erreta (txartelak argibide mahaian salgai).

**17:00etan** Nafarroako bertako 46. Artzain Txakurren Lehiaketa Ofiziala Geinberako barrutian (Euskal Herriko eta Nazioarteko txapelketetarako sailkagarria). Omenaldia.

\*Goizean zehar: gazten eta eskuz eginiko beste produktuen erakusketa; eskulanean erakusketa: kaikuak, egurrezko uztaiak, apaingarriak, zeramika, egurra, arda-lariak, taloak, jakiak... Euskal dantza, musika taldeak eta joaldunak.

**ALTSASU****Korrontzi**

>> **Agorrilaren 27an, asteartean**

**21:00etan** Zumalakarregi plazan Korrontzi taldeak trikitixak garai batean interpretatutako erritmoak berri eta eguneratu nahi ditu. Helburu berritzaile horretan bategin zuten Oinkari Dantza Taldearekin, eta horrela sortu zen Infernuko hauspoa ikuskizuna. Euskal folk-musika bere dantza eta tradizioekin fusionatzen da, batetik, soinuak, dantza tradizionalaketa koreografiak, eta bestetik, eragingarriak batzen dituen lan batean. Ikuskizun hori bat-egite, fusio, batzura eta mestizaje hutsa da, dantza musikatuen zaparrada ederra.

**ALTSASU****Kentara, una  
experiencia  
irrepetible**

>> **Garilaren 27an, larunbatean**

**22:00etan** Altsasuko Zumalakarregi plazan. Hodei magoa.

**ALTSASU****Garagardo azoka**

Agorrilaren 29tik irailaren 1era, ostegunetik domekara, Altsasuko Zubeztia plazako karpan.



**Eskaintzak**

- Betileendako maskara iraunkorra eta erdiiraunkorra
- Gorputzeko eta aurpegiko laserrean %20a
- Manikura eta pedikura erdiiraunkorra

**Amaia Benjumea**

649 444 018

Nagusia 12, 1.B · Etxarri Aranz



Mendigain kalea, 5 • LAKUNTZA • 948 576 286

**"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik"**



**LAKUNTZAKO UDALA**

www.lakuntzakoudala.com

info@lakuntzakoudala.com

tel. 948 576 015




**LaKuntzaileok**

HERRITARREN PARTE-HARTZE PLANA

## FESTAK Irañeta:

>> Agorrilaren 29tik irailaren 1era, ostegunetik igandera

## FESTAK Errotz:

>> Agorrilaren 30etik irailaren 2ra, ostiraletik astelehenera

## ALTSASU

**Are zailagoa! Nafarroako zirku jaialdia!**

>> Agorrilak 31, larunbata

**18:00etan** Altsasuko Iortia kultur gune parean  
Zirkuko karparen magiak Altsasu-

ko kaleak hartuko ditu eta hainbat artista lanean ikusteko aukera izanen da. Gazte pistak hiru emanaldirekin zabalduko du jaialdia (18:00etan): Shakti Olaizola kontortsonista, Colas Rouanet malabarista eta Estropizio akrobata bikotea. Haien ondoren (19:00etan), zirkuko pistaz Bistaki ikuskizuna jabetuko da. Jaialdirako sortutako zirku eta dantza garaikideko sormena da. Pirinioetako bi aldeetako 15 artistak sormen lan berritzailea eskainiko diote publikoari. Ezin zailagoa! jaialdia ixteko (19:30ean) Collectif de la Bascule aterako da pistara baskulan oinarritutako ikuskizuna eskaintzeko. Akrobatak oreka jokoak, jauziak eta beste erraztasun ikaragarriak egiten ikusteko aukera izanen da. Altsasuko Udaleko Kultura Sailak Uharte-Iruñea, Tuter, Viana eta San Adriangoarekin batera antolatuko du Nafarroako zirku jaialdia. Zirkua zain izanen duzu.

## ALTSASU

**XLIV. Otadiako Kristo Deuna Txapelketa abian**



>> Agorrilak 31, larunbata

**22:00etan** lehen finalerdia. 2. finalerdia irailaren 7an eta final handia irailaren 15ean. Sociedad Deportiva Alsasuak 44. Otadiako Kristo Deuna pilotatorneoko kartela itxi du. Aipatu torneo afizionatuen mailan torneo entzutetsua da. Aurten bi finalerdi eta final handia izanen ditu torneoa. Hiru mailatan jokatu da. Gazte mailako pilotariak eskuz banaka ariko dira lehian. 4 pilotari lehiatuko dira: Laso, Errandonea, Bakaikoa eta Larunbe. 22 urtez azpikoak lau t'erdian ariko dira. 4 pilotarik jokatu dute: Otamendi, Agirre, Dario eta Lopez. Bukatzeko, afizionatuak binaka ariko dira. 4 bikote izanen dira lehian: Artola-Tolosa, Beitia-

K. Galartza, Ansotegi-Gorritieta Ontsalopeñas. Agorrilaren 31n lehendabiziko finalerdia jokatu da, 22:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Bigarren finalerdia irailaren 7an erabakiko da eta final handia irailaren 15ean, Altsasuko festetan.

>> Agorrilak 31, larunbata

**22:00etan** (lehen finalerdia) Gazte mailan, buruz buru: Laso-Errandonea  
22 urtez azpikoak, lau t'erdian: Otamendi-Agirre  
Nagusiak, eskuz binaka: Artola-Tolosa / Beitia-K. Galartza

## ALTSASU

**Itandurieta**

>> Irailaren 1ean, domekan

**8:30ean** Burunda Txirindulari Taldearen mendi bizikleta saileko Altsasuko egoitza eta 9:50ean Bioitza kanpinetik.

## ALTSASU

**Larun**

>> Irailaren 1ean, domekan

Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitza.

## URBASA OTSOPORTILLO

**Gerra Zibilean hildakoak eta errepresaliatuak gogoan**

>> Irailak 1, igandea, Otsoportillon

Gerra Zibila hasi zela 77 urte bete dira aurten. Urtero moduan Gerra Zibilean hildakoak eta errepresaliatuak izanen dituzte gogoan irailko lehen igandean Otsoportillon egiten den ekitaldian. Etxarri Aranzoko Udalak antolatzen du ekitaldia, Urbasako leizean hildakoen senideekin batera. Beste behin, faxismoaren biktimendako egia aitortza, justizia eta erreparazioa eskatuko dituzte eta antolatutako omenaldi xumean parte hartzeranimatu dituzte sakandarrak. Ekitaldia 12:30ean abiatuko da, eta aurretik meza elizkizuna izanen da.

araia-asparrengo *umore* 20  
antzerkiaren jaialdia



2013ko abuztuak  
14, 15, 16, 17 eta 18a

Informazio telefona:  
678 71 36 98  
www.jaraialdia.com



## » Altsasu



Zelandiko guraso elkarte burua eta zuzendaria udal ordezkariekin.

## Escoletan beharrezkoak diren inbertsioak egiteko ekarpen handiagoa eskatu diote Gobernuari

Zelandi ikastetxe publikoaren teilatuan dauden itajurak konpontzeko premiazko eskaera egin zion Altsasuko Udalak Hezkuntza Departamentuari. Horrekin batera, ikastetxeko perimetroa itxitura berritzeko lanak egiteko laguntza ere eskatu zuen udalak. 60.000 euroko aurrekontua duten lanetarako 6.456,92 euro besterik ez ditu eman Nafarroako Gobernuak. Kopuru horrekin teilatuan zer egin aztertuko du udalak.

UPN eta PP ez beste, udaleko gainontzeko talde guztiek gobernuari "exijitu" diote "diru-laguntzen deialdiko kopurua handitzea, Altsasuko eskola-eraikinetan

beharrezkoak diren inbertsioak egin ahal izateko". Gogora ekarri dutenez, "Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan lanak eta hobekuntzak egiteko diru-laguntzak gobernuaren ardurara dira, bere betebeharrara dira, eta inondik inora ere ez udalena".

Nabarmendu zuten Zelandi eskolak "premia larria" duela bertan inbertsioak egiteko, "Udalak hori partxe bidez estaltzea ez da konponbidea, kalteei modu prekarioan erantzutea baino ez da hori". Haur Eskola barrakoietan dagoela behin-behinean gogorarazi zuten. "Horrela jarraituz gero, Haur Eskola proiektua ez da behin ere egingen".

## » Ziordia

# Aulki bat kalera ateratzeko

Jose Ignazio Flores "Axio" aulki elektriko baten esperoan dago

Gorputza ahultzen dion gaixotasuna aurrera doa eta Jose Ignazio Flores Axio-k aulki elektriko behar du. Neorologoak agindu zion eta Nafarroako Gobernuan eskatu zuten. Gobernuak eskaera onartu zuen, baina ilbeldzetik aulkia itxoi ten ari dira. "Gauza geldituta dago", dio Begoña Mendiak Floresen emazteak. Nafarroan ortopedia jakin batek ematen ditu aulkiak eta Gobernuaren eta ortopediaren arteko kontzertu ekonomikoa amaitzen. "Kontzertua ez dagoela eginda esaten digute, eta bi edo hiru edo sei hilabete itxoin beharko dugula".

Zenbait erkidegotan Gobernuak diru-laguntzak ematen ditu eta gero erabiltzaileak nahi duen dandan eros dezake baina Nafarroan ez, Mendiak azaldu duenez. "Nafarroako Gobernuak aulkia eman behar digu, gurea da, bainak kontzertua ez dagoenez eginda eta Gobernuak une honetan dagoen moduan ikusita, ez digute ematen". Dagoen aulkia jaso nahi du Floresek.

### Autonomia gehiago

"Ez digute kasurik egiten". Flores itxaropena galtzen ari da. Parlamentura joatea ere pentsatu du. "Diru-



Mugikortasun handiagoe emanen dion aulkia eskatu du Axio. ERKUDEN RUIZ

rik ez dute, behintzat gauza haue tan gastatzeko", gaineratu du Mendiak. Zenbait aulki banatu dituzte, baina ez dira Floresek behar duena. "Bost edo sei aulki eman omen dituzte, baina normalak dira. Guk berezia behar dugu eta agindurik ez dutela esaten digute".

Aulki elektrikoak autonomia gehiago emango dio Flores; kalera ateratzeko eta bizitza ahalik eta normalena eramateko aukera. "Orain dugun aulkian laster nekutzen da eta behar duenarekin denbora gehiago egon gaitzke kale-

an. Aizkora erakustaldietara joatea, gustatzen baitzaio, edo Altsasura joatea. Geratzen zaion eragin garri bakarra da", dio Mendiak. Agiriak mugitu eta "gauzak bizkortu" zezaketela gaineratu du. "Bihotza izango balute baina zenbakiak gara gu", nabarmendu du Floresek. Jose Ignazio Flores "Axio"ren gaixotasunak gorputzeko giharrak ahuldu dizkio. Baita organoak ere. "Dagoeneko ezin naiz asko mugitu". Jendeak ematen dion indarra eta Axioaren Lagunak lortutakoa eskertzen dute.

*Festa egiten dugu musikaz josia. Txistua da Etxarrin tresna berezia. Kalejira, arin-arin eta dantzakia. Gure festen arima da txistularia.*

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

ETXARRI ARANAZKO UDALA

## &gt;&gt; Olatzagutia

# Portlanden 18 kaleratze izanen dira

**Enpresan 104 langile geldituko dira. Joan den urtean porlandegia beste 28 langilek utzi behar izan zuten**

Zuzendaritzak eta CCOO, UGT eta USO sindikatuek adostutako Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) lantegietako batzarrek berretsi ondoren, asteartean sinatu zuten. Olatzagutiko porlandegian hasieran aurreikusitako 29 kaleratzeak baino 11 gutxiago izanen dira, 18: bat zuzendaritzako kidea da, 58 urte betetzean 6 langile aurre-jubilatuak dituzte eta 11 langile gehiago kaleratuko ditu Cementos Portland Valderrivas-ek (CPV).

Irailaren 30erako kaleratuko dituzte langileak, nahiz eta enpresak arrazoiren bategatik langileen baten kaleratzea atzeratu deza-

keen. Kasu horretan, hala ere, urtea despeditu aurretik kaleratuko lukete. Zementu kontsumoa jaitsi egin denez, CPVk iragarri ekoizpena doitzeko bestelako neurriak hartuko dituela irailetik aurrera: lan egutegia egokitzeko aldi baterako kontratuak eteteko enplegu erregulazio espedientea eta soldaten murrizketa.

## Erreakzioak

UGT-tik adierazi digute "kaleratzeak izatean ezin dugu balorazio positiborik egin. Ahal ziren lanpostu gehienak salbatzen saiatu gara". Ikerketa eta garapen zetroaren zati bat mantenduko dela esan digute UGTn, martxan dauden proiektuekin segitzeko. Bestalde, kaleratzeekin CPVk zementua egiteko biga-

rren labea itxiztat eman duela nabarmendu dute. Madrilgo negoziario mahaian gehiengoa duen CCOOren adierazpenik ez dugu.

ELAko ordezkariak kritikatu azaldu dira emaitzarekin, kaleratzeak ez diren beste aukerak aztertu ere egin ez direlako. ELAtik gaineratu dutenez, "kaleratuetako batzeuk gelditzen direnak baino esperientzia eta prestakuntza handiagoa dute". 11 kaleratuetatik 7 ELAko kideak (haietako bat ordezkari sindikala), beste bat LABekoa eta gainontzeko 3ak afiliatorik gabeko langileak direla nabarmendu digute. ELAtik nabarmendu dute lantegian jarraituko duten beste 11 langileak UGTren eta CCOOren karneta dutela. Astelehenean Madrilen eginen den EEE inspektzio bileran



Porlandegiaren ikuspegia.

ELAk jazarpen sindikala salatuko duela aurreratu digute.

Asteartean Madrildik kalera-tuko zituzten langileen kopurua etortzea espero zen, baina izen-abizen zerrenda iritsi zen. Kalera-

tutako batek bere sentipena adierazi digu: "Lantegian izandako batzuk izandako jokabideengatik, erabakia aurretik hartu zuten. Ez gaitu enpresak bota, lankide izan ditugunak baizik".

## &gt;&gt; Altsasu

# Joan den urteko udalaren soberakina 430.803,36 eurokoa da

Zerga kontrolerako planak fruituak eman ditu. Hala jakinarazi zuten Garazi Urrestarazu alkateak eta Hasier Gonzalez ogasun zinegotziak. NaBaik proposatutako kontrol plan horren barruan lau zerga gainbegiratu ditu udalak: Ekonomia Jarduerengaineko Zerga (EJZ), Eraikuntzen, Instalazioen eta Obrengaineko Zerga (EIOZ), plusbalioak eta eremu publikoak erabiltzeagatik gas, telefono eta elektrizitate enpresa hornitzaileek ordaintzen duten tasa (herrian fakturazten dutenaren %1,5).

## Sarrerak handitu

Planaren ondorioz EJZren bidez jasotakoa %89 handitu da. Gonzalezek jakinarazi duenez, 2008tik eguneratu gabe zegoen zerga hori. "Kasu batzuetan igo egin da, besteetan jaitsi. Enpresei ordainketa zatika egiteko aukera eman diegu". EIOZ bidez jasotako dirua %93 handitu da. Horretarako, udalak 2008tik egin diren obra guztiak errebisatu ditu. Plusbalioak eta

baso aprobetxamendutik sortutako diru sarrerek ere gora egin dute.

Aurrekontuak zehurtzia printzipioa kontuan hartuta egin zirela gogora ekarri zuten zinegotziak. 2012ko aurrekontuan aurreikusitako gastu arruntaren %91,5 egin zela jakinarazi zuten Gonzalezek. "Ordainketa 30 egunera egiten dira, egunean ditugu".

Gastu arruntaren %45 langileei ordaintzera bideratzen du udalak. Gonzalezek joan den urtean udalak egindako ahalegina nabarmendu du: langileei atzeratutako antzinatasuna ordaindu zitzaizen, aldi baterako kontratatutako langileen egoera erregularizatu zen eta abenduko estraren ordezkia ordaindu zitzaizen langileei. Gastu arruntari eusteko ahalegin berezia egiten ari direla ere azpimarratu zuten.

## Proposamenak

Bilduko kideek diru hori tokiko ekonomia aktibatze eta enplegua sustatzeko erabiltzea proposatu dute. "Altsasuko enpresak kontra-

## Aldaketa politikorako aldarria



EHBilduk Politika plazara ekitaldia egin zuen atzo plazan. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak Nafarroako Gobernuaren murrizketen aurrean udalek jasaten duten egoera; bestelako politika bat gauzatzeko egiteko beharra nabarmendu zuen eta udaletik egindakoaren adibideak eman zituen, esaterako langileei joan den urtean 14. ordainsaria ematea. Nafarroan aldaketa emateko udalak tresna direla aipatu zuen Urrestarazuk, baina segituen gaineratu zuen horretarako babesa ezinbestekoa dela horretarako. Kalea aktibatu behar ere nabarmendu zuen. Alkatearen ondoren Asun Fernandez de Garaialde Lazkano, Miren Aranoa eta Bakartxo Ruizek hartu zuten hitza, Nafarroako politikaren atzoko, gaurko eta biharko klabeak errebasatu zituzten.

tatuz, herriari ahalik eta gehien itzultzea nahi dugu" esan zuen alkateak. Aurreikusitako lanen artean kale konponketak (Zubetzia) eta Zelandiko eskolako itxitura eta teilatua konpontzea dago.

Espainiako Gobernuaren Aurrekontu Egonkortasun Lege-

ak kontuak ongi dituzten udalei maileguak ordaintzea eta inbertsioak egitea besterik ez duela uzten gogorarazi eta kritikatu ondoren, toki erakundeek inbertsioak egiteko garaian autonomiak izan behar dutela aldarrikatu zuten.

## &gt;&gt; Altsasu

## Etxegabeen aterpeak 397 pertsona hartu zituen 2012an

Kaputxinoen egoitzaren ondoan dagoen etxegabeen aterpetik pasa ziren guztiak afaria, gau batez han lo egin zuten eta gosaria jaso zuten. Altsasuko Udalak eta Gizarte Politiketarako Departamentuak berriki hitzarmena sinatu dute. Altsasuko Udalak 15.247 euroko diru-laguntza jasoko ditu 397 pertsonari zerbitzua emateko. Joan den urtean udalak jasotako diru laguntza 13.076 eurokoa izan zen.

Baina gaua aterpean ematen duten kopuru guztia ez da diru horrekin estaltzen. Izan ere, departamentuak urtean behin aterpetik pasatzen diren pertsonen gastua hartzen du bere gain. Urtean zehar Altsasuko aterpetik behin baino gehiagotan pasatzen badira, departamentuak bakarrik ordaintzen du eta gainontzekoa udalaren bizkarra gelditzen dira. Baita argindarra, langileak, mantenua eta trenerako bidai txartelak ere. Guztira, Altsasuko Udalak aterpe zerbitzurako 33.000 euro bideratzen ditu. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkatea kexu azaldu du Nafarroako Gobernu gero eta irizpide zorrotzagoak jartzen ari delako.

9 lagunendako  
**TAXIA**

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025  
**IRURTZUN**

**GANUZA**  
SUKALDEAK  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Elektragailuak

**GANUZA**  
GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203  
faxes: 948 460 673  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI-ARANATZ

**LARRAZA**  
**ARDOAK**

Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz

**kaxeta**

liburudenda / paperdenda

Testu eta oporretako liburuak enkargatu!

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**PPSOE,**

**ETB**  
**digitala**

**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

TXIRRINDULARITZA

**KADETEAK ETXARRIN:** Kadeteek lasterketa dute bihar Beran, 17:00etan (53,5 km). Etxarri Aranazko festetan, agorrilaren 7an,

asteazkenarekin eta Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatuta, kadeteen mailako proba jokatu da (59 km, 17:00etan).

# kirola >>

## Atletismoa

### Antxon Zelaia 14.a Donostiako gaueko lasterketan

Larunbat gauean Eguzkiaren Kontrako Gaueko Lasterketa jokatu zen Donostian (10 km). Helmugara iritsi ziren 323 korrikalarien artean Aingeru Gutierrez-Cabello barakaldoarra izan zen lehena (31:46). Antxon Zelaia urdiaindarra 14.a sailkatu zen (37:46), eta Mikel Berdud altsasuarra 26.a (38:55).

&gt;&gt;



### Morenoren Zornotzako I. Milia

Javi Moreno altsasuarra irabazi du igandean Amorebieta-Etxanon jokatuako Zornotzako I. Milia (1.609 m). Horretaz gain, miliaren ondoren jokatuako 7 km-tako lasterketan 3.a sailkatu zen altsasuarra.

## Mendi lasterketa

### Unzurrunzaga hirugarrena Bidarrain

215 korrikalarik osatu zuten Bidarraiko mendi lasterketa eta Ugaitz Artola izan zen azkarrena (2:01:33), Fernando Etxegarai 9 minutu atarata (2:10:54). Dantzaleku Sakana taldeko Ander Unzurrunzaga etxarriar hirugarrena izan zen (2:14:29). Talde bereko Jose Ignazio Salgado altsasuarra 14.a iritsi zen helmugara (2:37:14).

## Disko jaurtiketa

### June Kintana 6.a European

49,17 M JAURTIKI ZUEN DISKOA, BERE MARKA GAINDITUZ

Italiako Rieti hirian junior mailako 22. Europako Atletismo Txapelketa jokatu zen ari da. Disko jaurtiketa finalean lehiatu zen June Kintana, uztailearen 19an, ostiralean. Bakaikuarrak maila polita eman zuen eta diskoa 49,17 metrora jaurtiki zuen eta bere marka pertsonala hobetu. Horretaz gain, beste disko bat 49 metrotik gora jaurtiki zuen eta soilik jaurtiketa nulo bat egin zuen. Horrela, Europako Txapelketa 6.a izan zen Kintana, Natalya Shirobokova errusiarraren jaurtiketatik (54,21 m) 5 metro pasara. Zorionik beroenak!




June Kintana entrenatzen. UTZITAKOIA

## Arku jaurtiketa

### Jose Luis Iriarte Munduko Arku Txapelketa

Uztailaren 19tik 21era arte Munduko Arku Txapelketa jokatu da Estatu Batuetako Indianan. Hiru arku-lari nafarrek hartu dute parte, tartean Jose Luis Iriarte Larunbe hiriberritarra. Oraindik ez dugu emaitzen berririk jaso.



Iriarte. UTZITAKOIA

## Kayak-igeriketa

### Kayakean ibili nahi duzu?

Asteartean, 17:30ean, Uharte Arakilgo igerilekuetan

Udako eskaintzaren barruan, Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak kayak jardunaldia antolatzen du asteartean, garilaren 30ean, 17:30ean Uharte Arakilgo igerilekuetan, Nafarroako Kirol Institutuaren laguntzarekin.

#### Izena emateko

Ekimena dohainik da, baina izena eman behar da Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Horretarako gaurkoa, garilaren 26a, da azken eguna.

#### Igandean piragua eta espeleologia egiteko aukera

Mank-eko kirol zerbitzuak lagunartean edo familian piragua eta espeleologia egiteko aukera eskainiko du igandean. Goizean, 10:00etan, piraguan ibiltzeko aukera egongo da Arakil ibaian, eta arratsaldean, 16:00etan, espeleologia ikastaroa eskainiko dute Kaxkardi elkarteak Urbaoko Laminatutu kobazuloan.

#### Sorosle ikastaroa eskainiko da

Mank-eko kirol-technikari Amaia Gerrickagoitiak azaldu digunez, eta nahikoa izena emate egon direnez, abuztuaren 19tik irailaren 6ra bitartean



Iaz Lakuntzan izan zen kayak jardunaldia. Aurten Uharten izanen da.

teko igerilekuko sorosle izateko ikastaroa egingo da. Oraindik ere tokia dago eta 16 urtetik gorako interesatu guztiek izena eman dezakete. Ikastaroa Altsasuko Zelandi igerilekuan egingenda, aste-

lehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara. Prezioa 430 eurokoa da, baina diru-laguntzak jasotzeko aukera dago. Izena emateko Mank-eko kirol zerbitzura jo (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com).

## Bazkide zozketa



#### GARILEKO SARIAK:

1- ZALDI IBILALDIA 2 LAGUNTZAT ETA EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA  
2- EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOEN CDA

3- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOEN CDA  
4- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOEN CDALIBURUA



## Non erabili

### Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

#### ETXARRI KOMERTZIALA

**ETXARRI ARANATZ**  
%10eko deskontua koltxoietan.

#### ARKANGOA TABERNA

**ALTSASU**  
Postrea edo kopa doakoa.

#### GIXANE ESTETIZISTA

**ALTSASU**  
Betileen permanentea eta tintarekin, atzazkalak zure erara margotu doan.

#### PINPILINPAUSA

**ALTSASU**  
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

#### TEXARTU

**IRUNEA**  
Eskaintza kanpainaren arabera.

#### CLINKER

**OLAZTI**  
Menuarekin kafea eta kopa

doan.

#### SORKUNDE HARATEGIA

**ALTSASU**  
50 €ko erosketetan etxeko produktoa doan

#### BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

## Triatloia

# Triatloi festa Urdiainen

Primerako eguraldiarekin jokatu zen, larunbatean, Sakanako XI. Haur Triatloia. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuzuen proba, Sakanako Triatloi Taldearen, Urdiango Aitziber elkartearen, Urdiango Udalaren eta Nafarroako Triatloi Federazioaren laguntzarekin. Ohikoa denez, Urdiango igerilekuek hartu zuten Sakanako XI. Haur Triatloia, eta Urrizti, San Pedro eta Sarabe paraje ederretan barna jokatu zen proba.

## 111 triatleta parte-hartzaileen artean 25 sakandar

6 kategoriatan jokatu zen proba: aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta juniorrak. Nahiz eta 130 triatletek izena eman, 111k hartu zuten parte, horietatik 25 sakandarrak. "Oso ongi joan zen dena. Uraren tenperatura ere 24 gradukoa zen. Epailak ere harrizta zeuden, normalean frexkoago egoten baita ura. Erantzunarekin oso kontentua gauden" adierazi du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Probak oso lehiatuak izan ziren, ikusgarriak, eta Urdiango Urriztin bildu ziren zaleek asko animatu zituzten triatletak.

Tamalez, Nafarroako Triatloi Federazioak ez dizkigu sailkapenak helarazi eta horregatik ezin dizkizuegu eskaini.

## Udako triatloi campusarekin pozik



Aurreko astean, garilaren 15ean hasi zen Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatutako udako triatloi campusa eta ostiralean despidituko da. Bi aste hauetan, izena eman duten 21 neska-mutikoak igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa batzen dituen kirolean murgildu dira, Sakanako Triatloi Taldeko Aitor Mozo, Urko Berdud eta Mikel Lakuntza kideen esanetara. Campusean aritu diren gehienak larunbatean Urdiainen jokatu zen Sakanako XI. Haur Triatloian aritu ziren. "Oso kontentua gauden udako triatloi campusak izan duen erantzunarekin. Neska-mutikoek asko ikasi dute" adierazi digu Mank-eko teknikari Amaia Gerrikagoitiak.



Hasieran igeriketaren txanda izan zen. ERKUDEN RUIZ BARROSO



Gero txirrindulari hartu behar izan zuten, eta, azkenik, korrika egin. ERKUDEN RUIZ

## Pilota

## OLAZTIKO 42. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETA

### Atzo final handiak jokatu ziren

Olaztiko San Migel elkarreteko Sute-gik antolatutako 42. San Migel Pilota Txapelketako final handiak jokatu ziren atzo, Olaztiko Santa Ana festaren lehendabiziko egunean. Goizean kategoriatxikiako finalak erabaki ziren eta arratsaldean kategoria nagusikoak, afizionatuenak eta elite mailakoak. Ondoren egin zen sari ematea. Guaixe inprentara eramateko orduan oraindik ez ziren arratsaldeko finalak jokatu, eta, ondorioz, ezin dizkizuegu emaitzak eman. Hala ere, jokatu ziren finalen zerrenda segidan duzue.

## Atzo jokatuak finalak

### Goizean kategoriatxikiak

Goizean, kategoriatxikiak

**Txiki txikiak:** Eneko (Sutegi) / Aitor-Mikel (Sutegi)

**Txikiak:** Aldasoro-Lopez (Idiazabal) / Soria-Zengotitabengoa (Elorrio)

**Umeak:** San Pedro-Mintegi (Idiazabal) / Garitano-Azkargorta (Arrasate)

**Kimuak:** Diaz de Gereñu-Jimenez (Txukun Lakua) / Aitor-Ander (Atxondo)

**Kimuak 1:** Gorka-Iñigo (Lemoa) / Zabalza-Igoa (Zizur)

**Haurrak 2:** Aiukar-Garai (Zaramaga) / Otxoa-Igoa (Etxarri Arantz)

**Haurrak 1:** Murua-Aurrekoetxea (Arrasate) / Iosu-Jon (Atxondo) Kadeteak: Azkonobieta-Garmendia (Lazkao) / Otermin-Gartzia (Sutegi)

**Gazteak:** Landaluze-Fernandez (Amurrio) / Intxausti-Matxin (Zegama)

**22 urtez azpikoak:** Perez de Albeniz-Etxebers (Aurrera Saiatz) / Azketa-Atxa (Zegama)

### 17:00etan, nagusiak

**3. maila:** Muñoa-Etxeberria / Pablo-Galu

**2. maila:** Garziandia-Peixel / Beñat-Aritz

**1. maila:** Murgiondo-Agirre / Ezkurdia-Arruti

**Afizionatuak:** Loban-Tabar / Azpuri-Linzoain

## Mendia

## Bargagain topagune

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak igandean LIII. Bargagaingo Igoera antolatu zuen, aldi berean XLIII. Mendi finalista izan zena. Goizeko 9:00etan ekin zioten igoerari, etxajua bota ondoren, etalehen geldialdia Gazteluan egin zuten, hamarretakoa egiteko. Bargagainera igota, meza eman zuen Sebastianek. Ondoren auzatearen eta txistu eta zortzikoen txanda izan zen.



FERNANDO SAYAS

## Aizkora

## Aritz Goñi 3. mailako aizkora finalean

Sanferminetan Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen Iruñean, eta aritu ziren 9 aizkolarietatik bostek igandean, 19:00etan Elizondon jokatu den finalerako sailkatzea lortu zuten: 16 urteko Iker Vicentek, (4:36), Mieltxo Mindegiak (4:58), Migel Angel Etxeberriak (5:41), Joxean Etxeberriak (5:55) eta Aritz Goñi etxarriak (6:03). Beraz, aipatutako bostek dute jokoan, igandean, Nafarroako 3. Mailako txapela.

**CARNICERIA I. ARREGUI**  
**HARATEGI ETA URDAITEGIA**

tel. 948 576 067

**Sakanako hiltegiaren hildako haragia**

Etxeko obradorea:

- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

**Igoa**  
arraindegia

948 460 111 - Arkuetabide kalea - Etxarri Arantz

## Txirrindularitza

## Verdugo 7.a Ordizian

Atzo Ordiziako klasikoa jokatu zen. Euskalteko lau sakandarrak –Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Pablo Urtañon eta Jorge Azanza– aritu ziren, Oscar Guerreroren zuzendaritzapean. Verdugok sekulako lasterketa egin zuen, 7.a iritsi baitzen helmugara, probako lehen euskalduna. Orika taldeko Daniel Teklehaimanot izan zen garailea.

Bihar 33. Donostiako Klasiko ezaguna jokatu da (232 km), eta Euskaltelen ez dira txirrindulari sakandarrak faltako. Jose Luis Arrieta uhartearrak Movistar Team taldea zuzenduko du, Alejandro Valverde eta Nairo Quintana buru direla. Hiriberriko Imanol Erbiti lanean ariko da.



## Lakuntzan afizionaturik gabe

Aurten Lakuntzak ez du afizionatuen mailako txirrindularitza proba hartuko. Halako proba bat antolatzeak aurrekontu handia dakar eta, tamalez, Lakuntzako Udalak ezin dio gastu horri aurre egin.

## Tourra: Arrieta pozik eta Guerreroren Euskaltelek itxura ona

Sky taldeko Chris Froome izan da Tourreko nagusi. Hala ere, Movistarreko zuzendari Jose Luis Arrieta uhartearrak kontentuegoteko arrazoi asko ditu, Nairo Quintana 2.a izan baita, etapa bat irabazi, gazteen sailkapenean lehena eta mendiko maillota eskuratzeaz gain. Talde lan bikaina egin du Hiriberriko Imanol Erbitik. Euskalteko zuzendari lanetan ibili da Oscar Guerrero altsasuarra. Talde laranjak itxura ona eman du, ihesaldietan aurrean egon baita eta Mikel Nieve 3.a izan baitzen Mont Ventouxen. Baina ez du helburua lortu, etapa bat irabaztea.

## Saskibaloia



UTZITAKOIA, ARTXIBOIA

## Etxarriarrendako Altsasuko Gaztetxeako Street Basket txapelketa

Ostiral arratsaldean jokatu zen Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako Altsasuko Gaztetxeako 6. Street Basket Txapelketa. Hiruko taldeak osatuta, txapelketa polita jokatu zuten izena eman zuten hirukoek, hori bai, beroari aurre eginez. Saskibaloia aitzakia hartuta, giro polita izan zen gaztetxeako plazoletan.

## Areto futbola

## Xota abuztuaren 12an lanera

Abuztuaren 12an ekinen dio Xota Nafarroak 2013-2014 denboraldi prestatzeari. Denboraldi aurreko 6 lagun arteko partidak jokatu ditu.

## JONY, BIGARREN FITXAKETA

Xotak Jonathan Delgado Lopez "Jony" jokalaria fitxatu du. Cadizeko San Fernandoko 23 urteko jokalaria 3. mailako 17. multzoko golegile handiena izan da, eta horregatik ekainaren bukaeran Irurtzongo klubak egin zituen hautaketa probetan aritu zen. Imanol Arregiri eta Miguel Hernandezi Virgili Cadiz taldekoak emandako maila bikaina gustatu zitzaion eta jokalaria fitxatzea erabaki zuten.

## Lagun arteko partidak

Marfil Santa Coloma - Xota Nafarroa (abuztuaren 15ean Ripollen)  
Xota Nafarroa - Nueva Generación (abuztuaren 20an Noainen)  
Xota Nafarroa - Bartzelona (abuztuaren 23an Iruñean)  
Azkar Lugo - Xota Nafarroa (abuztuaren 24an Langrean)  
Umacón Zaragoza - Xota Nafarroa (abuztuaren 28an Zaragozan)  
Xota Nafarroa - Marfil Santa Coloma (irailaren 6an Iruñean)

## Areto futbola

## Areto futbolari bultzada berria

FUTSALSAKANA ARETO FUTBOL TXAPELKETA ANTOLATU DUTE, IRAILEAN ABIATUKO DENA. IZENA EMATEA ZABALIK DAGO

Irurtzongo Xota areto klubari lotutako Leandro Fernandez jokalaria ohi eta entrenatzaileak, berriki [www.deportesnavarra.es](http://www.deportesnavarra.es) enpresaren bidez Futsal Sakana 2013-2014 areto futbol txapelketa antolatu du, hainbat entitatearen laguntzarekin: Uharteko Arakilgo Udala, Lacturale, eta [guaixe.net](http://guaixe.net). Helburua Sakanan afizionatuen areto futbol txapelketa indartzea da "azken aldian behera egin duela. Horregatik, eta munduko ilusio guztiarekin, areto futbol liga hau sortu dugu Sakanan, hainbat arrazoi direla medio ohiko areto futbol taldeetan aritu ezin diren afizionatuek non aritu izan dezaten" adierazi digu Leandro Fernandezek. Fernandezek gaineratu duenez, "nahi dutenek eman ahal dute izena: herriko koadrilek, lagun koadrilek... inportanteena areto futboleantzearen ilusioa da".

Futsal Sakana I. Sakanako Areto Futbol Txapelketa irailean hasiko litzateke eta maiatzean despiditu. Ligaren ondoren, Sakanako Kopa jokatu litzateke. Partidak Uharteko Arakilgo frontoian jokatu-

ko dira, astean barna 20:30etik aurrera, asteazketan eta ostira-lean bereziki, eta igandetan goizeko 10:00etatik aurrera, izena ematen duten taldeen arabera, eta ez da ez arbitraje eta pista gasturik egongo.

## Baldintzak

Talde bakoitzak 15 jokalaria, entrenatzailea eta delegatua izan behar ditu eta talde bakoitzak 1.200 euro ordaindu behar ditu txapelketan parte hartzeko (izena ematea [www.futsalsakana.es](http://www.futsalsakana.es) orrian). Bertan federatu gabe dauden jokariendako asegurua jasotzen da. Lesioren bat izanez gero, adostutako klinika batera joateko aukera izango du kaltetutakoak. Izena ematearekin batera, talde bakoitzak ondokoa jasoko du: jokatzeo ekipazioa (Joma etxeo kamiseta, praka eta galtzerdiak), Xotaren partida guztiak ikusteko lau bono eta Umbro etxeo 3 baloi, txapelketako partidak jokatzeo.

Bestalde, liga hasita ere jokalaria berriak sartzeko aukera izango dute taldeek. Abuztuaren bukaeran bilera egingo dute antola-



Leandro Fernandez da bulkatzailea. Argazkian, Xotako jokalaria zenean.

tzaileek eta izena ematen duten taldeek, txapelketako egutegia, araudiak eta beste zehazteko.

## Sariak

Ligako txapelkunak 1.200 euro eta trofeoa eskuratuko ditu eta txapelkunordeak 400 euro eta trofeoa. Horretaz gain, gol gehien sartzen dituen jokalaria, pitxitxiak, saria jasoko du eta baita gol gutxien jaso-

[www.futsalsakana.es](http://www.futsalsakana.es)

Txapelketako informazio guztia, araudia eta izena ematea barne. Facebook eta twitter sare sozialetan baita ere. Harremanetarako: Leandro (670 595 098 telefonoa) edo [info@futsalsakana.es](mailto:info@futsalsakana.es).

zuten dituen atezainak ere. Kiroltasun handien duen taldeak 250 euroko saria jasoko du, kirol materialean.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETKEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneetik ostiralera  
**Eguneko menua**  
8,25€

Asteburuetan  
**Menu berezia 25€**

948 467 876 • Altsasu

**MAPFRE ALTSASU**

J.A. Imaz Prim  
Tel: 948 563 354 • Faxa: 948 562 151  
San Juan, 48 • ALTSASU • [jimazpr@mapfre.com](mailto:jimazpr@mapfre.com)

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

# 948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

## Benita Imaz Mendiola

Ez nau izutzen  
negu hurbilak...

Alfalum



## Benita Imaz Mendiola

Gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak.

El Gabinete



## Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun  
argazki  
eta testuarekin

ARGAZKI  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.net

## Benita Imaz Mendiola

Indarra, ahulezia, gogortasuna,  
xamurtasuna, ausardia, beldurra,  
maitasuna: AMATASUNA.

Beti arte Benita.

Jaustan itxekuek

Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)-era  
edo hots egin  
948 564 275 telefonora



## Aniceta Galarza Lopez de Zubiria

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une hauetan  
gure ondoan egon zareten guztiei,  
bereziki Bakaikuko osasun etxekoei  
eta larrialdi zerbitzuei, maitasunez emandako zaintzagatik.

Anai-arrebak, ilobak eta iloben seme-alabak

"Pedro de Atarrabia" XXIV literatur sariketa. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 15an.

### Oharrak

**Odol emaileak.** Uztailaren 27an, 28an eta 29an Altsasun, arratsalde; 30ean Altsasun, goizez. Abuztuaren 14an eta 21ean Etxarri Aranatzan arratsalde; 27an, 28an eta 29an Altsasun arratsalde; 30ean Altsasun goizez.

**Euskara irakasleen topaketa.** Sakanako Gau Eskoletan eta AEKn aritutako irakasleak irailaren 21ean, larunbatarekin, bazkaltzera bilduko dira. Izena emateko eta informaziorako hots egin 646-04 00 54 telefonora.

**Haurren erditmoak errespetatzen dituen eskola libre nahi baduzu.** Deitu 661-59 04 20 telefonora.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) euskonews@euskonews.com, 943-32 22 94.

**Urdiango eskolan negutegi.** bat behar dugu, hots egin telefono honetara 948-46 83 45.

**Liburuak truke.** Informazio gehiago larrezabaldk@inigoaritz.com

**Nafarroa Oinez.** Lagundu nahi bagaitzazu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerririk asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZ0ZidV6RUVTdHFjMklvR1c4TGc6MQ>

**3MBk kontu korrantea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Pikuxar Mus Txapelketa azkarra.** Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 bikotara, eliminatoria. [www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumus-txapelketa-azkarrak](http://www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikumus-txapelketa-azkarrak). 5€ bikoteko. Saria bi gazta.

### JAIOTZAK

- Egoi Saralegi Lainez, ekainaren 30ean Uharte Arakilen.
- Eider Beramendi Martinez de Albeniz, uztailaren 17an Altsasun.

### EZKONTZAK

- Alatz Agirre Unzilla eta Mayra Palop Mora, uztailaren 20an Altsasun.

### HERIOTZAK

- Benita Imaz Mendiola, uztailaren 19an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948-56 38 50 (klinika) edo 689-03 51 20 (Pati) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixegua txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

# guaixe.iragarkilaburrak.com

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

### Lana / Negozioa

#### LAN ESKAINTZA

**Ingeles klaseak.** Maila guztiak. Urdiainen. Tituluduna. Eskarmentua eta emaitza onak. Telefonoa 626-34 02 76.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

#### ALDATU

**Pisua aldatu.** Arbizun 3 gelako pisua (ganbara eta bajearekin) aldatzen da 4 gelako pisu-etxeagatik. Baldintzak negoziatzeko prest. Kontakturako telefonoa: 653-72 64 76.

### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

### Dorraoko festetan bi taberna alokatzen.

Festak abuztuaren 15etik 18ra izango dira. Interesatuak dei dezala 626-59 23 18 telefonora uztailaren 30a baino lehen.

**Ihabarren elkarteak alokagai.** Denon Kabia elkarteak festetan alokatzen da. Abuztuaren 30etik irailaren 2ra. Interesatuak hots egin dezatela abuztuaren 10a baino lehen telefono honetara 650-70 18 03.

### OPARITAKOAK

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Telefonoa 696-37 21 48

### Opatutakoak / Galdutakoak

### OPATUTAKOAK

**Kanario bat (edo antzeko txoria) opatu dut Etxarri.** Uztailaren 8an. Galdu duenak hots egin dezala 699-38 26 73 telefonora.

### Ikastaroak

**IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako ikastaroak.** Informazio gehiago: 948-13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonómico.php>

### Lehiaketa

**ARKEOLOGOA ERRADIOKARBONO BIDEZKO DATAZIOEZ:** Uhartre Arakilgo Zamartzeko arkeologia-indusketan parte hartzen ari diren irakasleetako batek, Cardiffko Unibertsitateko

Seren Griffiths ikerlariak, erradiokarbono bidezko datazioen inguruko azken berriak azalduko ditu bihar, 12:30ean, ingelesez.

kultura >>

# Lezearen margo erakusketa

**Altsasuko Gure Etxea eraikinean, garilaren 29tik agorriaren 6ra, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara**

**E**z da aurreneko aldia Martin Fernando Lezea Olmosek bere margolanak, olioak Altsasun erakusten dituena. "Aurrekoa aspaldi izan zen", esan digu margolariak. Pauen hamarretan eta bizitoki duen Hendaian zazpi bat alditan erakutsi ditu bere lanak. Uda Altsasun pasa behar duela baliatuz erakusketa prestatu du Lezeak.

Margolariak 80 urte ditu eta 30 eman ditu margotzen. Dekoratzailerle diploma du eta urteetan, "bizi

guztia", arkitekturari lotutako lanak lortu ditu, "planoak egin eta abar". Horrek margotzerakoan perspektibetarako eta abarrerako lagundu diola esan digu Lezeak. Pintatzeko gogo, denbora eta osasuna behar direla dio. Asko gustatzen zaiola aitortu digu, baina ekintzailea denez beste jarduerak batzuek (baratza...) denbora kentzen diote.

## 45 lan

Ehun bat koadro eginak ditu baina Altsasuko erakusketarako gehien gustatzen zaizkionak aukeratu ditu. Astelehenetik aurrera 45 margolan jarriko ditu ikusgai.

Olio erabiltzen du bere koadroak egiteko, inoiz pastelak erabili baditu ere.

Haietan nagusi diren gaiak paisaiak, ohiturak eta familia dira. Aurreneko atalean Altsasu eta ingurukoak daude, esaterako, Barquilleros etxea, Erkudengo ermita, Olaztiko iturria, Bargagain... Baina baita urrutikoak ere: Torla hiria, Riglos, Vero ibaia eta beste. Mihi-seetan islatu dituen ohituen artean Altsasuko eta Olaztiko inauterriak, Olaztiko festak, Altsasuko azoka, Hendaiaiko arrantzaleak, harrijasotzaileak... Eta azken sailean emaztea, osabak, semea eta bere autoerretatuak bildu ditu.



## bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

### Amaia da hasiera

Udaberria euripean eta negu giroan iragan bada ere, azkenik uda eta eguzkia ailegatu dira eta haiekin batera Guaixek atseden hartzeko unea. Gogotik egin du lan urte osoan zehar eta behar-beharrezkoa zaio etena. Urtearen zikloari bukaera eman behar zaio, berriz ere, indar berriturik beste aro bati hasiera emateko. Urte honetan gorabeherak handiak bizi izan ditugu eta, oker egon nahiko nuke, etorkizunean biziko ditugunak ere ez dira makalak izango, maleziak ez baitu oporrik hartzen. Sarabeko azken jentilak oso ongi zekien hau. Jakintsua zen oso eta bere gorpuzkera, bere jakituria bezain handia zen: labeetan erabiltzen diren horietako pala batez igo behar zizkieten betazalak izarrak ikus zitzan. Jentilen Sukaldeko bere txokoa azken hatsa botatzear zelarik hauxe esan zuen: "giza jendearen arraza hil da, eta zakur jendearen agailenduda". Nolako arrazoa zuen gure arbasoak! Ez gara hemendik joango luzaroko. Hemenegongo garabeti gure herriak gordetzen dituen altxorrek zaintzeko. Barandiaranek zioen bezala, Urbasak urrez beteriko kutxak gordetzen ditu. Gure mendi eta leize zuloetan altxor miresgarriak daude. Ia ia lur azalean daude, haien gaintetik bazkatzen ari diren ardiek berek desestaltzaz, oharkabean, haien hanka apatxekin. Denada urrea eta urrezko agure Sakana mai-

tean: Marik Altsasuko Odabeko leizeangordetzen dituen astalkaia eta orrazia; 7 euskal ahizpatxo birjinetako 2 sakandar, Erkuden eta Aitziber; Laieneko haitzeko Jentileihoan dagoen jentil gaztearen adatsa apaintzen duen orrazia; eta, bereziki eta gauza guztiengaitik, gure ibarreko jendearen bihotza. Halere, kontu handiz ibili behar dugu zakur jendeak oparitu nahidigun balizko urreaz. Ez dakigula gerta, ez, Putterrin zegoen artzainari suertatu zitzaiona. Zaldi zuri eder baten gainean zetorren zaldun bat agertu zitzaion galdetuz ea non zegoen leku hartako kobazuloa. Artzainak zehaztasun guztiak eman eta zaldunak, sari gisaz, urrezko txanpon bat oparitu zion; baina, zalduna desagertu zen bezain laster txanpona hauts bilakatu zitzaion artzain gaixoari. Urrea agindu eta hautsa eman... Zenbat usteldu, zenbat ustelkeria, zenbat lapur, zenbat diru ostu diguten, Hirumugaatako mugarri balitz bezala. Burunda eta Ataunen arteko mugan zegoen harri hura. Hiltzean, mugarria ostu zuenaren arima herra-tua basoan zebilen infernuko zigorraren beldurrez oihukatzen: *Hirumugaatako mugarria, Nere animaren galgarri, Non sar, non sar?* Eta handik pasa zen sakandar batek esan zion: Sartu ateraduzun lekuan! Guztioi agur t'ardi esaten dizuegu, bihar arte, ikusi arte. Atsedena hartuz, altxorra hobeto zaintzera goaz. Ongi izan! Uda onona pasa!

## Sakanako play back txapelketan izen ematea zabalik

**E**txarri Aranazko festetan, agorriaren 6an, asteartean rekin jokatu da estreinakoz Sakako Play Back txapelketa. Izena eman nahi duenak kultura@etxarriaranatz.com helbidera idatzi beharko du, edo bestela aipatutako egunean Etxarriko plazan agertu 18:30etik aurrera. Parte-hartzaileek ordu horretan aurkeztu beharko dute haien saiorako musika duen CD-a. Lau sari banatuko dira: bakar-lari edo bikote onena (75 euro), talde onena (100 euro), originaltasuna (75 euro) eta euskal abesti onena (75 euro).

## Gaztetxoak Irañetako bertso udalekuan

**I**gandean 12 eta 14 urte bitarteko 35 gaztetxo etorri ziren Irañetara, Euskal Herriko Bertsozale Elkar-teak antolatutako bertso udalekuan parte hartzera. Bihar arte egon dira Irañetan eta tarte horretan euskaraz, aisialdiaz eta bertsozaleekin zuzeneko harremana izanez. Bertso afariak gain, Irañetako egonaldian gaztetxoek bertsozaleekin zuzeneko harreman egoteko aukera izan dute. Herenegun Eneko Fernandez eta Onintza



Enbeitza bertsozaleen bisita hartuko zuten udalekuan.

Baina dena ez da bertsoa izan, Oskar Estangarekin batera kantagintza ere landu baitute. Irañetakoak gain beste sei txanda antolatu ditu elkar-teak eta bakoitzean kantu bat lantzen dute, gero guztien artean diskoa osatuz.

## Altsasuarren esku festetako kartela aukeratzea

Gaur da azken eguna hautagaietako baten aldeko boza emateko

**I**railaren 13an hasiko diren festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du Altsasuko Udalak. 22 lan aurkeztu ziren lehiaketara eta epaimahaiak haietako hiru aukeratu zituen (Iortia kultur gunean ikusgai daude). Orain altsasuarren txanda da: hiru proposamenen artean gogokoaren alde boza emateko aukera dute. Horretarako Altsasun erroldatuta eta 16 urte baino gehiago izan behar dute. Boz gehien lortzen dituen kartelaren



egileak 600 euro eskuratuko ditu.

Festetako kartelaren bozketan parte hartu nahi duenak hiru modu ditu bere botoa emateko: goizez Iortia kultur guneetik pasa; 012

telefono-

ra hots egin edo [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) web orrira sartuta. Altsasuar bakoitzak boto bana eman ahaliko du eta bozketa garaian nortasun agiria erakutsi beharko du.

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 18%	euria: 18%	euria: 18%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 15%
Min: 17 Max: 29	Min: 17 Max: 28	Min: 16 Max: 27	Min: 14 Max: 26	Min: 14 Max: 29	Min: 16 Max: 30	Min: 17 Max: 25

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	32.9	12	10.8
Altsasu	33	12.5	7.5
Aralar	25.2	11.7	4.1
Urbasa	30	10	10.5

: ilargiaren aldia >>

	ilbehera	ilberri	ilgora	iilbete
	29	6	14	21

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

## 2014

# Egutegiaren eskaintza mundiala!

Mahai, poltsiko, eta horma egutegiak

irailaren 30era arte

948 564 275  
publi@guaixe.net  
publizitatea@guaixe.net

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

# >> 11

## galdera

Lucas Mozo

Unanuko totemaren egilea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



SAKANAKO experience

Haran bat hiru natur parkeen artean  
Un valle entre tres parques naturales  
A valley surrounded by three natural parks

prezioak precios prices

Buztintza - ascensos - rappel  
4 pax 1.200 € - 12 pax 2.200 €  
4 pax 1.200 € - 12 pax 2.200 €

Buztintza - ascensos - rappel  
4 pax 1.200 € - 12 pax 2.200 €  
4 pax 1.200 € - 12 pax 2.200 €

Buztintza - ascensos - rappel  
4 pax 1.200 € - 12 pax 2.200 €  
4 pax 1.200 € - 12 pax 2.200 €

ekintzak actividades activities

Ezpetu - Espeleología - Climbing  
Rappelling - Treking  
Orientazio - Orientación - Orienteering  
Puztintza - Parashute  
Zaldi-errepaketa - Paseos a caballo - Horse riding  
Ardakan-irteerak - Interpretación ambiental  
Entrenamiento - Interpretation

## Hartu arnasa eta bizi gure esperientzia!

MTB

BIZIKLETA ALOKAIKURIA  
BIKE RENTAL  
LOCATION DE VÉLO  
ALQUILER DE BICI

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

- 1.- Nola hasi zinen totema egiten?**

Etxean ardi, behi eta ahari buru-hezurak nituen eta bururatu zitzaidan poste horretan jartzea. Gutxi neukala pentsatzen nuen baina gero adarrak atera ziren, behorren buruak eta behien buruen goikoak.
- 2.- Nondik lortu dituzu hezurak?**

Etxeko ahariak ziren. Albaitariak analisiak egiten zituen eta txarra ateratzen bazen hilarazi egiten zieten artzainei. Ploba artzaina zen eta igual zeuzkan hamabi ahari eta haietatik zazpi edo txarrak ateratzen ziren. Haiek hilarazten zizkidan niri, bera ez zen atrebitzen. Mendira eraman, lepoa kendu eta horrela. Niri ematen zizkidan horiek. Horrela lortu nituen gehienak. Behienak, aurrerago Iruñean bi urtez bizi-tzen egon nintzen eta hiltegitik ekarri nituen. Batzuk 20 urte edo gehiago dira etxera ekarri nituela. Neronek garbitzen eta pintatzen ditut.
- 3.- Nola garbitzen dituzu buru-hezurak?**

Lima batekin duten zolda pixka hori kentzen diot eta gero lījatu. Lan asko egiten dut, baina gustura aritzen naiz ni.
- 4.- Zergatik hasi zinen egiten?**

Jende asko ibiltzen da hemen eta esan nuen: jarri behar ditut buru batzuk hor: Besterik gabe hasi nintzen. Emaztea haserretzen zen buru-hezurak etxean izateagatik eta esan zidan zerbait egiteko

- haiekin. Eta gehiago haserretu baino lehen postean jartzea pentsatu nuen.
- 5.- Sinbologiaren bat jarraitzen dute?**

Ez. Mendizaleak pasatzen dira hemendik San Donatora igotzeko. Ostiralean, larunbatean eta jaian denak gelditu eta argazkiak ateratzen aritzen dira. Misterioaren bat duen galdetzen didate, baina ez. Eskailerarekin igotzen naiz eta alanbreekin lotzen ditut. Beheko bi ostu zizkidaten, jarri eta berehala. Ordezko gehiago nituen eta berriz ez osteko hobe ki lotu nuen.
- 6.- Beraz, jendeak galdetzen dizu zer den?**

Bai, esaten didate ea festak diren. Nik esaten diet ezetz.
- 7.- Makilak ere egiten dituzu, ezta?**

Askok. Orain egiteari utzi diot baina paseatzeko bastoi eta mendira joateko makila luzeak ere egiten nituen. 200 bat izango ditut
- etxean. Oparitu egiten ditut orain, bati bi, besteari hiru...
- 8.- Eta nola hasi zinen makilak egiten?**

Beste lanik ez da hemen eta paseoan basora joaten gara. Gu mendian ibili gara beti. Honek balio du, handik egun batzuetara bestea, egurreko adarrak hartu eta egiten nituen. Noizbait Etxarrikoferietan egon naiz. Hainbat formatakoak dira.
- 9.- Eskultura gehiago egin dituzu?**

Ez. Hau bakarrik. Gauza gehiago jarriko dizkiot honi. Buru batzuk ditut, ez dira onak eta denbora asko daramate hemen. Beltzedo zuriz margotuko ditut eta lotuko ditut makila zurira.
- 10.- Izena jarri diozu?**

Ez diot jarri.
- 11.- Jendeak buru-hezurak erosi nahi izan du?**

Ez. Niregana ez da inor etorri. Jendea geratzen da begira eta argazki asko ateratzen dituzte.